



ARTZINIEGAKO UDALA

AKTA

Saioa: Ezohiko osoko bilkura
Eguna: 2018ko irailak 27
Ordua: 19:00 – 21:00
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratuak:

Iñigo Gomez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Maria Lorente Burgos
Miren Izaskun Perez Barragan
Joseba Mirena Vivanco Retes
Arkaitz San Jose Martinez
Alazne Lafragua Ureta
Unai Gotxi Kastrexana
Joseba Elejalde Ribacoba

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 19:00etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

Alkatea: gai-zerrendarekin hasi aurretik, aurkeztu, taldeetako bozeramaileei helarazi diet, kreditu gehigarri bat onartzea gaineratzeko proposamen bat, efizientzia energetikoko neurriekin lotuta, eta proiektuan berehalakotasuna aipatzen da. Puntu hau gai-zerrendara gaineratzea egokia den ala ez bozkatu behar dugu.

Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Berehalakotasuna onartuta geratu da. Gai-zerrendara gaineratu da.

Joseba Vivanco Retes: guk badaukagu, gaur goizean Idazkariari helarazi diot, galdetzeko, era berean, Osoko Bilkuran erregistratu genuen mozio bati berehalakotasuna emateko, azkenean ez zen gai-zerrendara gaineratu eta mozioaren berehalakotasunari heltzea nahiko genuke ondoren Osoko Bilkuran bozkatze aldera.

Alkatea: mozio bat da, zeinaren inguruan museoaren hitzarmenarekin lotuta akordiorako proposamen bat igorri zaizuen. Taldeetako bozeramaileek duzue eta etnografia elkarteak ere badu proposamen hori, baitaratzeko modukoa izan daitekeen eran, Artea Etnografia Elkarteak egiten duen hitzarmenaren proposamenean. Beraz, ez da gaineratu alde aurretik akordio bat egon behar dela ulertzen delako. Bederen, ekainean joratu genuen moduan, Elkarteak balioetsi dezala, hau bi aldeen arteko akordio bat baldin bada adostasuna egon behar da.



Joseba Vivanco Retes: guri bidali zitzaigun dokumentu hori, guk aztertu dugu, aztertu dugu apur bat hilabete hauetan hitz egin dena zela, ez da inolako aurrerapausoa, orduan, horregatik mozioa gaurko Osoko Bilkuran sar dadila berrir eskatzea erabaki dugu, izan ere, gure ustez, mozio honekin, eta proposamen honekin, nahi duguna da behingoz Udalaren eta Artea Elkartearen artean ematen ari den egonkortze eta blokeo egoera hori desblokea dadila, bide on bati heltzeko datorren urtean, urtarrilaren 1etik aurrera, hori baita guztiok nahi duguna pentsatzen dut, museoak orain arte bezala funtzionatzen jarrai dezan. Beraz, horregatik proposatzen dugu bozketari berehalakotasuna ematea eta Osoko Bilkuran erabaki, eztabaidatu eta bozkatu dadila.

Alkatea: Orduan, berehalakotasuneko bozketa egingo dugu, Ascen?

Ascension Hormazabal Meabe: bai.

Alkatea: ados.

Bozkatu egin da:

Kontran:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ alderditik (4);

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martínez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Berehalakotasuna onartuta geratu da. Gai-zerrendara gaineratu da.

1. 2018ko ekainaren 7an eta uztailaren 23an egindako saioetako aktak onartzea, hala badagokio.

Alkatea: Zer edo zer aipatu nahi duzue? 9. orrialdean esaten da (gaztelaniazko bertsioan) "un proyecto común y no una pela". "Pelea" da esan zena. Eta 10. orrialdean (gaztelaniazko bertsioan) "días después esa reunión o se hubiese" aipatzen da, berez "no se hubiese producido" delarik.

Unai Gotxi Kastrexana: Zein bilkuran?

Alkatea: ekainaren 7koan. Zure agerraldiak dira Arkaitz, bat zurea da Arkaitz, baina "pelea" esan zenuen, ez "pela".

Joseba Elejalde Ribacoba: nik, uztailaren 23ko saioan, 11. orrialdean, "muestro mi apoyo a los trabajadores de CEL" esaten dudanean, noski, TTA enpresako langileei esan nahi nuen, ez CEL enpresako langileei.

Ekainaren 7ko akta bozkatu da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik (1); Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (1);

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

Uztailaren 23ko akta bozkatu da.

Kontran:



Batere ez.

Abstentzioa:

Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik(1); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (3);

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV alderdikoak (3); Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderdikoa (1); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

2. 2017ko Kontu Orokorra onartzea

Alkateak akordioaren proiektua irakurri du.

“Erakunde honen 2017 ekitaldirako Kontu Orokorra aztertu ondoren, Udalbatza honetako Kontuen Batzorde Berezia bere txostena egin ondoren eta Kontu Orokorra publikoaren eskura jarri ondoren, 2018ko abuztuaren 6ko 90. Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki bidez, erreklamaziorik, arazorik edo oharrik jaso gabe, honakoa proposatzen da:

Lehenengoa.- Udalaren 2017 ekitaldiko Kontu Orokorra onartzea.

Bigarrenik.- Ondasunen Inbentarioa zuzentzea, hala xedatzen baitu Toki Erakundeen Ondasunen Araudiak, 31. artikuluan”.

Alkatea: Zer edo zer aipatu nahi duzue?

Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martínez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (4).

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

3. TECNOCOM TELEC y ENERGIA sozietatearen kredituaren aitortpen judiziala onartzea.

Alkateak irizpena irakurri du.

“2018ko ekainaren 17an egindako saioan Antolaketa informazio-batzordeak emandako irizpena.

IKUSIRIK 2018ko ekainaren 13an Idazkaritzak 2017ko ekitaldiko hurrengo kreditua judizioz kanpo aitortzeko prozedurari eta legeria aplikagarriari buruz igorritako txostena:

Hirugarrena: TECNOCOM, TELEC. Y ENERGIA S.A.

Fak. 1001030814 TRENDMICRO LIZENTZIAK BERRITZEA 2017ko abuztuaren 21ekoa



Erregistro-data: 2018ko ekainak 12, 1625 zenbakiduna.

Zenbatekoa 45,65 €.

KONTUAN HARTUZ 2018ko ekainaren 13an Kontu-hartzaitzak igorritako txostena, aitorten hori zilegi zela adierazten zuena.

KONTUAN HARTUZ Alkatetzak horri dagokionez egindako proposamena, eta ikusirik Udalbatzari apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuko 60.2. artikulua arabera esleitzen zaion eskuduntza, 2018ko uztailaren 17an Ogasun arloko Informazio-batzordeak erabaki du Udalbatzari proposatzea hurrengo

ERABAKI DU

LEHENA. Hurrengo kredituen judizioz kanpoko aitortpena onartzea, 2017. ekitaldiari dagozkionak:

Hirugarrena: TECNOCOM, TELECOM Y ENERGIA S.A.

Fak. 1001030814 TRENDMICRO LIZENTZIAK BERRITZEA 2017ko abuztuaren 21ekoa

Erregistro-data: 2018ko ekainak 12, 1625 zenbakiduna.

Zenbatekoa 45,65 €.

BIGARRENA. 2018ko ekitaldiko Aurrekontuaren kontura, dagokion kreditua aplikatzea, gastuari aurre egite aldera, "Informatika Ekipamenduen Mantenua" izeneko 920.227.004 aurrekontu-aplikazioan kontsignazioa dagoela kontuan hartuta.

Alkatea: Zer edo zer aipatu nahi duzue?

Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

4. Kreditu gehigarriaren 6/2018 espedienteari dagokion aurrekontu egonkortasunerako helburua betetzeari buruzko Kontu-hartzaitzaren ebaluazio-txostenaren berri ematea.

Alkatea: beno, aurrekontu-aldaketa baten inguruan berri ematea da, aurrekontu-oreka, 1etik 7ra bitarteko kapituluak, betetzeari eta finantza arloko iraunkortasunari dagokienez.

"EGONKORTASUNERAKO HELBURUA BETETZEARI BURUZKO KONTU-HARTZAITZAREN EBALUAZIO-TXOSTENA¹

¹ Azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16.2. artikuluaekin bat etorriz, tokiko Kontu-hartzaitzak Aurrekontu Egonkortasunerako helburua betetzeari buruzko txosten bat taxutuko du, modu independentean igorriko dena eta Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen Testu Bategineko 177.2. artikuluan aurreikusten diren dokumentuetara gaineratuko dena.



6/2018 KREDITU GEHIGARRIAREN espedientea onartzeari dagokionez, Aurrekontu Egonkortasunerako abenduaren 12ko 18/2001 Legea Garatzeko Araudia, Tokiko Erakundeetan aplikatzeko, onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16.2. artikuluekin bat etorriz, igortzen dut hurrengo

TXOSTENA

LEHENA. Aurrekontuak eta Tokiko Erakundeen gastu eta sarreretan eragiten duten gainerako esku-hartzeak eratu, onartu eta gauzatzeko garaian aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko printzipioei jarraituko zaie, koherentea dena Europako araudiarekin, eta Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoko 3., 4., 11., 12. eta 13. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Herri Administrazioen Aurrekontu Egonkortasun modura ulertuko da egiturazko oreka- edo superabit-egoera. Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 11.3 eta 11. 4. artikuluetan adierazten dena betez, Tokiko Erakundeek ezin izango dute egiturazko defizitean erori, berau zikloko defizit doitu gisa (hau da, ezohiko eta aldi baterako neurriak kenduta) ulertuta. Horrenbestez, aurrekontuari dagokionez oreka- edo superabit-egoera izan beharko dute.

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12. artikuluan ezartzen denez, gastu zenbakariaren aldaketak ezin izango du Espainiako ekonomiaren epe ertaineko Barne Produktu Gordinaren hazkundearen erreferentzia-tasa gaitu. Gastu zenbakari modura ulertuko dira hauek: erabilera ez-finantzakoak, Nazioetako eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemaren terminoetan definituta, zorraren interesak kanpo utzita; Europar Batasunetik edo beste herri administrazio batzuetatik etorritako helburu jakin baterako funtsen bidez finantzatutako gastuaren zatia eta finantzaketa-sistemekin lotuta egindako transferentziak. Gastuaren araua kalkulatzeko erreferentzia-tasa Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak argitaratuko du, Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12.3. artikuluen arabera.

Finantza-iraunkortasunaren printzipioa bete egin beharko da, halakotzat ulertuta defizit eta zor publikoaren mugen barruan oraingo eta etorkizuneko gastu-konpromisoak finantzatzeko ahalmena.

BIGARRENA. Legeria aplikagarria hauek baldintzatuta dago;

— Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 3., 4., 11., 12. eta 13. artikulua.

—Aurrekontu Egonkortasunerako abenduaren 12ko 18/2001 Legea Garatzeko Araudia, Tokiko Erakundeetan aplikatzeko, onartzeko azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16.2. artikulua.

HIRUGARRENA. Aurrekontu Egonkortasunerako abenduaren 12ko 18/2001 Legea Garatzeko Araudia, Tokiko Erakundeetan aplikatzeko, onartzeko azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16. artikuluko 1 atalean in fine eta 2. atalean xedatzen denez, Tokiko Kontu-hartzailetzak txostena aurkeztuko du Udalbatzan Tokiko Erakundearen nahiz hartako organismo eta erakunde mendekoen egonkortasun-helburua betetzeari buruz.

Txosten horrek izaera independentea izango du eta Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen testu bategina onartzeko martxoaren 5eko Legegintzako 2/2004 Errege Dekretuaren 177.2. artikuluan aurreikusten diren dokumentutara gaineratuko da.

Tokiko Kontu-hartzaileak egindako kalkuluak eta burututako doikuntzak zehaztu beharko ditu bere txostenean, aurrekontuko gastu- eta sarrera-egoerei buruzko 1etik 9ra arteko



kapituluetako datuak oinarritzat hartuz, Kontabilitate Nazionalako terminoetan definituta, Nazioetako eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemaren arabera.

Kontu-hartzaileak erabilera ez finantzarioek Barne Produktu Gordinaren erreferentzia-tasa gainditzen ez dutela egiaztatu beharko du, behin zorraren interesak, administrazioen transferentzia finalistak eta finantzaketa-sistemekin lotuta egindako transferentziak kenduta.

Kontu-hartzaileak defizit eta zor publikoaren mugen barruan oraingo eta etorkizuneko gastu-konpromisoak finantzatzeko ahalmena ebaluatu egin beharko du, Europako Araudian eta Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorriz.

LAUGARRENA. Aurrekontu-oreka gastuen aurrekontuko 1etik 7ra arteko kapituluak eta sarreraren aurrekontuko 1etik 7ra arteko kapituluak alderatzean lortzen da. Aurrekontu egonkortasunerako helburua egiturazko oreka- edo superabit-egoera batekin identifikatuko da.

BOSGARRENA. Finantza iraunkortasuna bete den egiaztatzeko oraingo eta etorkizuneko konpromisoak hartzeko ahalmena defizitari eta zor publikoari dagozkion helburuekin bateragarri direla egiaztatuko da.

SEIGARRENA. Horri dagokionez, lortutako emaitzaren berri eman behar da:

Ondorio modura, Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoko 32. artikuluekin bat etorriz, Udal honek aukera dauka 2017ko Diru-zaintzako Soberakin Likidoarekin finantzatutako kreditu gehigarriaren espedienteak onartzeko, izan ere, ez du amortizatzeko dauden mailegurik.

2018ko ekitaldiko aurrekontua likidatzean zehaztuko da gastuaren arauari dagokion helburua egiaz bete den ala ez, partida bakoitza zer-nola gauzatu den ikusita.

Haatik, finantza iraunkortasunaren helburua betetzeari dagokionez, oraingo eta etorkizuneko konpromisoak hartzeko ahalmena defizitari eta zor publikoari dagozkion helburuekin bateragarri diren ikusiz egiaztatu behar dena, kontu-hartzailetza honek espediente honetan aipatzen den gastuak finantza iraunkortasunean eragina izango duela jakinarazten du:

Egun aurrekontuan ezarritakoarekin alderatuz, gastu handiagoa aurreikusten da aurrekontu-aplikazio honetan:

338.226.0 12	Antzinako azoka	3.000, 00
-----------------	-----------------	--------------

finantza-iraunkortasunean eragina izanik ekitaldi honetan eta hurrengoetan, gastu hori errepikatzen bada.

Berlaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

5. EHBILDU alderdiak aurkeztutako mozioa, autobus-lineako tarifei buruz:

Alkatea: mozioa irakurri nahi baduzue.

Joseba Vivanco Retesek mozioa irakurri du:



“Joan den maiatzean Arabako Batzar Nagusietan Artziniega-Okondo linea batzen duen eta Artziniegan bizi diren pertsonen interesei begira erabat diskriminatzailea den autobus-zerbitzuaren tarifari buruzko hurrengo mozioa onartu zen:

«ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

34/2018 mozioa, maiatzaren 16koa, Artziniegako Udalak herri hau Okondoko herriarekin lotzen duen hiriarteko autobusaren 16. lineako txartelaren kostua murrizteari dagokionez egindako eskaerari buruzkoa:

Arabako Batzar Nagusietan, 2018ko maiatzaren 16an egindako osoko bilkuran, hurrengo mozioa onartu zen:

34/2018 mozioa, maiatzaren 16koa, Artziniegako Udalak herri hau Okondoko herriarekin lotzen duen hiriarteko autobusaren 16. lineako txartelaren kostua murrizteari dagokionez egindako eskaerari buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek hertsatuki eskatzen diote Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura eta Mugikortasuneko foru diputatuari aipatutako eskaera aintzat har dezan eta 16. zenbakidun autobus-lineako tarifak berrikus ditzan, Artziniegako herritarrek ordaindutako zenbatekoak Aiaraldeako gainerako herritarrek ordaintzen dituzten tarifetara egokituz.

2. Arabako Batzar Nagusiek hertsatuki eskatzen diote Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura eta Mugikortasuneko foru diputatuari aldaketa hau indarrean ipin dezan irailaren 1aren aurretik.

3. Arabako Batzar Nagusiek hertsatuki eskatzen diote Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura eta Mugikortasuneko Sailari erabiltzaile bakoitzak ordaintzeko prezioen politika berrikus dezan distantziaren arabera tarifen aldetiko ezberdintasunak egon daitezela ekiditeko.

2018ko irailaren 1ean, Bide Azpiegitura eta Mugikortasuneko Sailak ez du inolako aldaketa edo berrikuspenik burutu, Batzar Nagusietan onartutako mozioan adierazitakoaren ildotik doanik.

UDALBATZARI PROPOSAMENA

Artziniegako Udalbatzak eskatzen dio Arabako Foru Aldundiari 2018ko maiatzaren 16an Batzar Nagusietan onartutako mozioa aintzatetsi dezan eta 16. zenbakidun autobus-lineako tarifak lehenbailehen berrikus ditzan, ordaindutako zenbatekoak Aiaraldeako gainerako herritarren tarifetara egokituz”.

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue? Puntu honetan, nire ustez, ez dago deus esateko mozioko testuaren inguruan. Egia da nik Aldundiarekin izandako bilkuretan hori egiteko borondatea agertu duela, eta epea barruan betetzeko zailtasuna aipatzen da, baina, jakina, Batzar Nagusietan hartutako erabakia da.

Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.



6. 9/2018 zenbakidun kreditu gehigarriaren espedientea onartzea

Alkateak akordioaren proiektua irakurri du:

9/2018 zenbakidun kreditu GEHIGARRIAREN espedientea premiaz gauzatu behar denez, hurrengo ekitaldira arte ezin baita atzeratu, Udalaren interesen kalterik gabe, eta Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 34. artikuluekin eta Aurrekontua Egikaritzeko Oinarrietan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

9/2018 zenbakidun kreditu GEHIGARRIAREN espedientea irakurri da, izapidetuz indarreko Udal Aurrekontuaren barnean kredituak aldatzeko.

Halaber, Kontu Hartzailtzak aurrekontu-egonkortasunaren, gastu-arauaren eta finantza-iraunkortasunaren helburua betetzeari buruz eraturako txostenaren berri eman da.

Ikusirik Idazkaritza eta Kontu Hartzailtzak egindako txostena, la Antolaketa Informazio-batzordeak 2018ko egunez elkartuta erabaki du eta Udalbatzari proposatu dio har dezala hurrengo

ERABAKI DU

1. 9/2018 zenbakidun kreditu GEHIGARRIA onartzeko espedientea onartzea, 80.234,72 euroko zenbatekoaz, eta bertan agertzen diren horiek finantzatzeko gastu eta baliabideen partidak xehetasunez adierazita.

GASTUEN EGOERA

Indarreko Aurrekontuan areagotu asmo diren gastuen zerrenda

AURREKONTU- U- APLIKAZIOA	IZENA	AURREKO NTUA 2018	KRED. GEHI. 9/2018 (Udalbatza)	GUZTIRA
165.601.002	Energia-efizientziarako neurria: argiztapena Led argira aldatzea, 2018. II. fasea	34.345,95	80.234,72	119.580,67
	GUZTIRA	34.345,95	80.234,72	119.580,67

SARREREN EGOERA

Aurreko zenbatekoa jarraian zerrendatzen diren baliabideekin finantzatuta geratzen da. Horrenbestez, espedientea orekatua dago eta defizitik gabe:

AURREKONTU- APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKO A
870.01	Gastu orokorretarako diru-zaintzako soberakina	80.234,72

2. Udalbatzari aurrekontu-egonkortasunaren, gastu-arauaren eta finantza-iraunkortasunaren helburua betetzeari buruz eraturako txostenaren berri ematea.



3. *Espediente hori jendaurrean ipintzea erreklamazioak egin daitezzen Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako modu eta epeak betez.*

4. *Erreklamaziorik ez balego, akordio hau behin betikotzat hartzea.*

5. *Erreklamazioak jarriko balira, beste akordio bat hartzea hilabeteko epean.*

6. *Behin betiko akordioa arauz ezarritako forma eta epeak betez argitaratzea.*

7. *Aldi berean, espedientearen kopia bat igortzea Arabako Foru Aldundira”.*

Alkatea: horiek izango lirateke apur bat erabakiaren baldintzak. Beraz, kontua da, klausula teknikoen plegu bat dugu, baduzue kopia? ...

Joseba Vivanco Retes: ez, ez dugu inprimatu.

Alkatea: dagoeneko klausula teknikoen plegu bat dugu eratuta behingoz Led instalatzeko luminarien aldaketarekin amaitzeko. Era berean, diru-laguntza proiektu bat eskatu dugu, aurten auzoetarako irten baita zehazki. Eskatu dugun diru-laguntza 28.000 euro ingurukoa da, eta 119.000 euroko proiektu hau alde batetik aurreko ekitaldian I. faserako erdietsitako diru-laguntzekin, eta best alde batetik diru-zaintzako soberakinarekin finantzatzen da. Jarraitzea eta luminarien aldaketarekin amaitzea izango litzateke kontua, led teknologia ipintzea udalerrir osoan.

Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

7. EH-Bildu taldearen mozioa, Elkarreak museoaren inguruan aurkeztutako hitzarmenari buruzkoa.

Alkatea: Irakurriko duzue, mesedez.

Arkaitz San Jose Martinez: hitzarmen bat denez, ez dakit testua osorik irakurri behar ote den? Bestela, azalpen laburra emango dut. Funtsean, beno, askok ezagutzen duzue Artziniegako Etnografia Museoak egun duen egoera, oraindik ireki egiten bada ere, zerbitzua orain arte ematen den moduan arriskuan da izan ere ez da akordiorik lortzen, oso zaharra den hitzarmen batek jarraitzen du indarrean, ondoren ekainean egin genuen aldaketa aurten zerbitzua ordaintzeko sarreretako dirua izateko asmoz, baina 2019. urteari begira proposamenik gabe jarraitzen dugu, orduan proposamen ezberdinak egon dira, aurtengo martxotik hor dagoen gai bat da eta blokeatuta jarraitzen dugu puntu berean behin eta berriro, orduan EHBildu taldetik bere garaian, uztailan, idatzi bat aurkeztu genuen Alderdi Popularrarekin batera beste urrats bat eman behar zela esanez, eta beste fase batean sartu behar garela, non eztabaidatu behar dugun nola kudeatuko den, alde batera utzita esan dezagun alderdi ekonomikoa, edo ez dakit nola esan, eta ildo horretatik guk izan genuen azken batzarrean esan genuen hitzarmenaren proposamena Arteak idatzitako moduan aurkeztuko genuela, izan ere, Udalak lasai asko baitaratu zezakeela ulertzen genuen, eta hori da egiten duguna. Orduan, mozioa erregistratu genuen, Osoko Saio honetako deialdi honetan ez zela sartu ikusi genuen, eta



horregatik ekarri dugu berehalakotasunez, izan ere, gure ustez, dagoeneko martxoan eta apirilean aipatzen genituen epeez hitz egiten ari ez bagara ere, orduan hitz egiten baikenuen urrirako pleguak idatzita egon behar zirela enpresak aurkeztu ahal izateko 2019an zerbitzua emate aldera, behintzat bai, beste urrats bat eman eta ahalik eta gutxien atzeratzeko ahalegina egin dezagun. Orduan, ez dakit hitzarmen osoa irakurri behar ote dudan, edo hitzarmenean funtsean aipatzen dena da, horrela oso laburtuta...

Alkatea: bai, irakurri mesedez.

Arkaitz San Jose Martinez: Bai? Osorik irakurriko dut:

“HITZARMENA Artziniegako Etnografia Museoa irekitzeko (ARTZINIEGA MUSEOA) eta Informazio Turistikoko Bulegoa artatzeko, haren garbiketa barne.

ELKARTUAK.

Alde batetik **ARTZINIEGAKO UDAL TXIT GORENA**, eta haren izenean eta hura ordezkatzuz Iñigo Gomez Unzueta jauna,N.A.N. zenbakiaren jabea, Alkate modura,

Beste alde batetik, **ARTEA Etnografia Elkarte (Artziniega)**, Elkartearen Erregistroan 515 zenbakiaren inskribatua 1985eko martxoaren 13an; eta haren izenean eta hura ordezkatzuz, Francisca Ofizialdegi Fernandez andrea, 72.715.640J N.A.N. zenbakiaren jabea,ren (e)ko ezohiko Asanbladan Presidente izendatua, Elkarte horretako Akten Liburuan ageri denez.

Bi aldeek, elkarri Hitzarmen honen xederako beharrezkoa den legezko ahalmena aitortuz.

AZALTZEN DUTE.

1. Artea Etnografia Elkarteak helburu hauek ditu:

- a. Tokiko lan, aztura eta tradizioak eta, bigarren maila batean, Euskadiko gainerako gizartearenak, aipagai dituen kultura ondarea erakutsi, mantendu eta dibulгатzea.
- b. Herriko auzotarrak eta gizarteko gainerako kideak kulturalki eta giza mailan behar bezala hedatu eta goratzeko komenigarritzat jotzen dituen ikastaro, konferentzia, erakusketa eta bestelako egintzak antolatzea.
- c. **ARTZINIEGAKO ETNOGRAFIA MUSEOAREN (ARTZINIEGA MUSEOA)** funtsak zuzendu, kontserbatu eta mantentzea, eta etnografia gaiak ikertu eta dibulгатzea.

2. Kontratu honen xedea da hauen finantzaketa:

- a. Museoa eta Elkarte hartzeko egoitzetara bideratutako eraikin multzoa mantendu eta kontserbatzeko gastuak; finkaren gainerako zonaldeak barne.
- b. Higiezin horietan inbertsioa egiteko gastuak.
- c. Artziniegako Etnografia Museoa (ARTZINIEGA MUSEOA) eta bertan kokatutako Informazio Turistikoko Bulegoa irekitzeko eta bi eraikinen garbiketa egiteko gastuak, zerbitzu horien lizitazio-arau edota kontratazio-oinarrietan adierazitakoaren arabera.

Hitzarmen honen bidez, bi aldeek Etnografia Museoaren (ARTZINIEGA MUSEOA) kudeaketa eta funtzionamendu onerako baldintzak eta irizpide ekonomikoak finkatzen dituztela, adostuz hurrengo



HIZPAKETAK.

“LEHENA.- ERAIKIN MULTZOA ETA UDAL FINKAREN GAINERAKO ZONALDEAK KONTSERBATU ETA MANTENTZEKO GASTUAK.

ARTZINIETAKO UDAL TXIT GORENAK, Artziniegako Etnografia Museoari (ARTZINIEGA MUSEOA) dagokionez, Arteko Aldapako 12. zenbakian kokatzen den antzinako Karmeldarren lkastetxe zaharra modura ezagutzen zenaren udal jabetzako finkan lekutua, eraikin multzoa eta finkaren gainerako zonaldea mantendu eta kontserbatzeko gastuak beregain hartzen dituela. Gastu horiek ur hornidurarekin, eraikineko eta kanpoaldeko elektrizitate eta argiteriaren hornidurarekin, telefoniarekin, segurtasun-sistemekin (alarma, zaintzako kamerak, su-itxalgailuak, etab.), igogailuarekin edota mantenu-kontratuarekin dute zerikusia; horrez gain, ohiko konponketa gastuak nahiz lorategi eta kanpoko instalazioen garbiketa eta mozketako gastuak sartzen dira.

BIGARRENA.- OBRAK ETA INBERTSIOAK

Udal jabetzako finkaren barnean egin asmo den obra edo inbertsio orok, beste erakunde batzuek diruz lagunduta egon zein ez, higiezinaren jabedunaren onarpena beharko du, Udalbatzaren akordio bidez, alde zuzenetik aurrekontu-kontsignazio bat egonik.

HIRUGARRENA.- LIZITAZIOA

Artziniegako Udalak egingo du Artziniegako Etnografia Museoa (ARTZINIEGA MUSEOA) bisita gidatu eta didaktikoekin irekitzeko; Museoan bertan kokatutako Artziniegako Informazio Turistikoko Bulegoa irekitzeko eta Museo Multzoaren bi Eraikinak garbitzeko lizitazioa, zerbitzu horien kostua beregain hartuz, betiere, beste erakunde batzuen aldetiko laguntzak jasotzen ez badira.

Aldez aurretik lizitaziorako oinarriak eta arauak adostuko dira Udalaren eta Artea Etnografia Elkartearen artean.

LAUGARRENA.- HITZARMENAREN IRAUPENA

Hitzarmen honen iraupena 4 urtekoa izango da, eta urtero luzatzeko aukera egongo da.

BOSGARRENA.- ERAKUSKETA IRAUNKORRERAKO ELKARTEAREN KONPROMISOA.

Elkarteak, hitzarmen hau indarrean den bitartean, erakusketa iraunkorra mantendu eta hobetzeko konpromisoa hartzen du.

Lizitatutako zerbitzuen esleipendun den enpresak burututako lana kontratuaren arabera betearazteaz arduratuko da.

Halaber, metatutako ondarea kontserbatu eta berrezartzeko lanak egiteko konpromisoa hartzen du.

Eta aurrekoarekiko adostasun frogarria modura, bi aldeek dokumentu hau sinatzen dute, bi aletan, eta ondorio bakar batekin, goran adierazitako leku eta egunean”.

Arkaitz San Jose Martinez: orduan ez dugu ikusten inolako eragozpenik dagoenik Udalak, sarritan aipatu izan den moduan, gida-zerbitzuaren lizitazioa garbiketa eta mantenu-gastuak beregain har ditzan. Beste erakunde batzuekin batera, orain arte egin izan den moduan, horrela izango bailitzateke erakunde guztiek duten konpromisoa mantentzen baldin bada. Eta ez dakit, horixe da osoko bilkurara dakarkiguna.



Joseba Elejalde Ribacoba: hau guztiau, argi dago, Gobernuko taldearen ekintzarik ezetik eratoritzen da, edo noraezean egotetik. Duela dagoeneko bi hilabete oposizioko bi alderdi behartu gintuzuen beste mozio bat sartzera, zeren eta bestela, gai hau bera mahai gainean geratuko zen eta ez zen osoko bilkurara ekarriko. Gaur berdinetan gaude, bederatzi hilabete igaro dira museoarekin izan genuen lehendabiziko bilkura hartatik, eta ez dugu aurrerapausorik eman. Gure berezko erabakietan tematu gara, eta hori uste dut Museoaren irekieraren kaltetan doala. Eta bi taldeak aipatzen ditut, izan ere, Udala bere jarreretan tematu den moduan, Museo bereetan tematu da, ez du jakin aurrerapauso bat ematen. Zeretatik eratorrita? Mesfidantza batetik azken finean, gai honen inguruan lanak burutzeko moduari buruzko berezko mesfidantza. Burututako jazoeretara jo dugu, Udaletik bertatik denbora eta modu desegokian museoari hainbat dokumentazio eta planteamendu aurkeztu zaizkio, zeinak azkenik mesfidantzaz jokatu baitu Udalak fundazio bat egin nahi izateko eta pieza horiek fundazioa indarrean egon bitartean Udalaren esku lagata egoteko egiazko arrazoien inguruan, hori gertatzeko hiru urte, lau urte edo ehun urte behar izanik ere. Eta hortik aurrera arazo honekin aurkitzen gara, eta urrian gaude, ez ditugu pleguak atera, ezta oinarriak ere, eta lehiaketara ez da irtengo, eta 2019an ez dugu finantzaziorik izango Etnografia Museo irekitzeko eta, horrenbestez, azkenean Bilduk bada bide laburrago bat hartu du. Akordio bat aurkeztea, hitzarmen bat, Elkarteara, haien ustez ona dena. Niri gustatuko litzaidake edo gustatu egin izango litzaidake, Udaletik hau gehiago hedatu izan balitz, puntu segidakoak ipintzen dituen lekuan akordio batera iritsi ahal izatea, eta esate baterako museo irekitzeko gastuak ipintzen ez dituen lekuan, zein gastu diren jakin izan bagenu zehazki. Izan ere, ez da gauza bera Udalarentzat 50.000 euro izatea, 60.000 izatea edo 80.000 euro izatea. Eta hemen gaude, hemen gaude gaur dagoeneko eztabaidatuta egon beharko zukeen gauza bat eztabaidatzen, dagoeneko lehiaketa publikora irtetear egon beharko zukeena, eta Udala, ongi esan dudan moduan, bere iritziarekin tematuta dago, Museoaren aldetik piezak laga behar direlakoan, eta nik hori uler dezaket, korporazio honetako kide modura, eta Museo tematuta haiek Udalari piezak ez dizkiotela lagako, esku arraroren bat egon daitekeelako, edo beltza. Eta beste ezer gutxi esateko. Errepikatu nuen jadanik eta esan nuen azken osoko bilkuran. Arazoa da ezin dugula batzorde batera joan, gai batzuk jorratu, hiru taldeen artean akordio batzuk adostu, eta gai horiek eta akordio horiek Artziniegako Etnografia Museoari ez helaraztea, eta astebate beranduago bilkura bat izatea museoarekin eta astebate lehenago jakin behar zuen zerbait azaldu behar izatea, Artziniega Etnografia Museoak dituen bilkuren barnean bere azterketa egite aldera. Eta hori da Udal honek eta Gobernu taldeak duen akats nagusia. Ez garaiz eta modu egokian helaraztea taldeen artean erdietsitako akordioak Artziniega Etnografia Museora. Horrenbestez, gaurko egoerara iristen gara, hau onartu ala ez onartzea Museoak funtzionatzen jarrai dezan 2019an edo onarpen hori atzeratzea eta lanari ekitea gehienez 15 eguneko epe batekin bi aldeak aseko dituen akordio bat eta hitzarmen bat egiaz idazteko.

Alkatea: badirudi ez dugula ikasten, izan ere, oraingoan akordio-proposamen bat igorri diegu gainerako taldeei, akordio-proposamen bat igorri diogu Artea Elkarteari, eta halere mozioa mantendu egiten da. Egia esatera zaila da nola asmatu jakiten, baina tira.

Inmaculada Vivanco: nik Iñigok esaten duen proposamen hori irakurriko dut, beste taldeei eta Etnografia Elkarteari igorri zaiena, eta orduan proposamena honakoa da:

“GAIA: Artziniega Etnografia Museo hartzera bideratutako udal eraikina lagatzeko sinatutako hitzarmeneko baldintzak eguneratzea.

Ikusirik Artziniega Etnografia Museo irekitzeko Hitzarmen-proposamena, 2018ko abuztuaren 21ean Mateo Lafragua Alvarez jaunak aurkeztua, Elkarteko Idazkari modura, hitzez hitz hurrengo hizpaketak barneratzen dituena:

“LEHENA.- ERAIKIN MULTZOA ETA UDAL FINKAREN GAINERAKO ZONALDEAK KONTSERBATU ETA MANTENTZEKO GASTUAK.

ARTZINIETAKO UDAL TXIT GORENAK, Artziniegako Etnografia Museoari (ARTZINIEGA MUSEOA) dagokionez, Arteko Aldapako 12. zenbakian kokatzen den antzinako Karmeldarren



Ikastetxe zaharra modura ezagutzen zenaren udal jabetzako finkan lekutua, eraikin multzoa eta finkaren gainerako zonaldea mantendu eta kontserbatzeko gastuak beregain hartzen dituela. Gastu horiek ur hornidurarekin, eraikineko eta kanpoaldeko elektrizitate eta argiteriaren hornidurarekin, telefoniarekin, segurtasun-sistemekin (alarma, zaintzako kamerak, suitzalgailuak, etab.), igogailuarekin edota mantenu-kontratuarekin dute zerikusia; horrez gain, ohiko konponketa gastuak nahiz lorategi eta kanpoko instalazioen garbiketa eta mozketako gastuak sartzen dira.

BIGARRENA.- OBRAK ETA INBERTSIOAK

Udal jabetzako finkaren barnean egin asmo den obra edo inbertsio orok, beste erakunde batzuek diruz lagunduta egon zein ez, higiezinaren jabedunaren onarpena beharko du, Udalbatzaren akordio bidez, alde zuzenetik aurrekontu-kontsignazio bat egonik.

HIRUGARRENA.- LIZITAZIOA

Artziniegako Udalak egingo du Artziniegako Etnografia Museoa (ARTZINIEGA MUSEOA) bisita gidatu eta didaktikoekin irekitzeko; Museoan bertan kokatutako Artziniegako Informazio Turistikoko Bulegoa irekitzeko eta Museo Multzoaren bi Eraikinak garbitzeko lizitazioa, zerbitzu horien kostua beregain hartuz, betiere, beste erakunde batzuen aldetiko laguntzak jasotzen ez badira.

Aldez aurretik lizitaziorako oinarriak eta arauak adostuko dira Udalaren eta Artea Etnografia Elkartearen artean.

LAUGARRENA.- HITZARMENAREN IRAUPENA

Hitzarmen honen iraupena 4 urtekoa izango da, eta urtero luzatzeko aukera egongo da.

BOSGARRENA.- ERAKUSKETA IRAUNKORRERAKO ELKARTEAREN KONPROMISOA.

Elkarteak, hitzarmen hau indarrean den bitartean, erakusketa iraunkorra mantendu eta hobetzeko konpromisoa hartzen du.

Lizitatutako zerbitzuen esleipendun den enpresak burututako lana kontratuaren arabera betearazteaz arduratuko da.

Halaber, metatutako ondarea kontserbatu eta berrezartzeko lanak egiteko konpromisoa hartzen du”.

Kontuan izanik Udalbatzak 2018ko ekainaren 7an egindako ohiko saioan adostu zuela Artea Elkarte Etnografikoari hertsatuki eskatzea 2004ko urriaren 21ean sinatutako Hitzarmenaren baldintzak berrikusi ditzala, zeinaren bidez Udalak egungo Arteko Aldapako 12. zenbakian kokatzen den antzinako Karmeldarren Ikastetxe zaharra modura ezagutzen zenaren udal jabetzako finka lagatzen baitu, Artziniegako Etnografia Museoa berrireki dadin, baldintza hauetan:

- 2018ko ekitaldi honetarako 2004ko urriaren 21ean sinatutako Hitzarmena luzatuko da, zioen azalpenean adierazitako aldaketarekin, sarreren salmenten ondorioz jasotako dirua Elkartearen sartzeari ahalbidetzekoa.

Kontuan izanik udal intereseko lehentasuntzat jotzen dela Artziniega Etnografia Museoaren bideragarritasuna bultzatu eta bermatzea, adostasuna agertuz Udalak gida-zerbitzuaren lizitazioa burutu eta Museoaren kostuak beregain hartzeko proposamenarekin, haren mantenua



bermatuz. Haatik, hori berme guztiakin burutu beharko da eta aplikagarri den araudia betez. Horretarako egokitzat jotzen da Artziniegako Udalak Museoaren irekitzeko lizitazioa beregain hartzea, sektore publikoko kontratuaren araudiarekin eta indarreko tokiko araubidearekin bat etorritik.

Kontuan izanik Museoaren irekiera lizitatu ahal izateko baldintza hauek bete behar direla:

- Museoaren funtsen inbentario bat egin beharko da, eta Udalak ezingo du Museoaren irekiera lizitatu piezak behar bezala erabilgarri ez baditu, horien mantenua eta kontserbazioari begira komeni den moduan identifikatuta egon behar direnak.

- Artea Elkarteak Museoaren osatzen duten piezen gaineko titulartasuna edo horien gaineko erabilgarritasun erabatekoa egiaztatu beharko du edo, behinik behin, titulartasun edo erabileraren erantzukizunpeko adierazpena luzatu beharko du eta Artziniegako Udalarik aldi baterako horiek lagatzea adostu beharko du, hark Museoaren irekiera lizitatu ahal dezan lizitazioaren esleipendun den enpresari piezak mantendu eta kontserbatzeari dagokionez beharrezkoak diren baldintzak betearaziz.

- Artziniegako Udalak kontratazioa eta Museoaren sorrarazten dituen gastu guztiak beregain hartuko dituenek, lege ez dagokio Elkartearen izatea esleipendun den enpresari lanak kontratuaren arabera betetzeko eskatu behar diona. Betebehar hori Udalarik dagokio, hura baita erakunde kontratatzailea.

Kontuan izanik proposamenean ez dela inolako aipamenik egiten sarreraren diru-sarrerari buruz, Artziniegako Udalak Museoaren irekierak sorrarazitako gastu guztiak eta haren mantenua bermatzeko dagozkionak osorik beregain hartzen dituenek, sarrera kontzeptuan jasotako zenbatekoak Udalarik bilduko ditu Museotik eratorritako gastuei aurre egiteko.

Horri buruz Euskadiko Museoen abenduaren 1eko 7/2006 Legean nahiz Euskadiko Museoaren eta Bildumen Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko araudia onartu eta museo edo bilduma bat «Euskadiko Museo» edo «Euskadiko Bilduma» dela onartzeko aitorpena arautzeko ekainaren 21eko 132/2011 Dekretuan xedatutakoa kontuan hartuz.

Kontuan hartuz Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen xedatua; nahiz Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan eta toki araubideari dagokionez aplikagarri diren gainerako araudietan xedatua.

Udalbatza honek, ohiko osoko bilkuran, 2018ko irailaren...(e)an elkartuta, (gehiengoan adierazi)...ren arabera...

ADOSTU DU:

Lehenik.- Artea Elkarte Etnografikoak proposatutako Museoaren irekierarako lizitazioa Artziniegako Udalarik beregain hartzea onartzea, kontratazioari nahiz gastuak beregain hartzeari dagozkion legeko betekizunak betez, 2004ko urriaren 21ean sinatutako Hitzarmenaren baldintzak berrikusi ditzala egokitzat joz, zeinaren bidez Udalarik egungo Arteko Aldapako 12. zenbakian kokatzen den antzinako Karmeldarren Ikastetxe zaharra modura ezagutzen zenaren udal jabetzako finka lagatzen baitu, Artziniegako Etnografia Museoaren berrikeri dadin, baldintza hauetan:



- *Sektore Publikoko Kontratuaren araudiko nahiz aplikagarri diren gaineko araudietako eskakizunak betez, aldez aurretik museoko funtsen inbentarioa eginda eta horiek udalari laga eta haren eskutan ipini ondotik, legearen arabera. Hala, Artziniegako Udalak Artziniega Etnografia Museoaren irekieraren kudeaketa beregain hartuko du, gida-zerbitzuaren lizitazioa burutuz eta museoko jarduna bultzatuz, Artziniega Etnografia Museoaren jarraikortasuna bermatuz.*

- *Udalak sarrerei dagozkien zenbatekoak jasoko ditu eta horien gaineko kontrol zorrotza egingo du.*

- *Artea Elkarteak erakusketa iraunkorraren mantenuan eta hobekuntzan parte hartuko du, eta Udalak esku-hartze horietatik eratorritako gastuak diruz laguntzeko konpromisoa hartuko du, aplikagarri den araudiarekin bat etorritz.*

- *Erakusketaren inguruan egiten den edozein eguneratze edo hobekuntza dokumentatu egin beharko da eta erakusketa iraunkorrekoak diren museoko funtsen mantenua bermatuz gauzatuko da.*

Bigarrenik.- *Artea Elkarte Etnografikoari eta interesa izan dezakeen edonori akordio honen berri ematea, adieraziz haren aurrean, aukera dutela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioekiko Auzien Epaitegien aurrean, hala badagokio, Udal honen aurrean hilabete bateko epean hautazko berraztertze errekurtsoa ezarri aurretik”.*

Inmaculada Vivanco Retes: hori da Artea Etnografia Museoari nahiz udal taldeei igorri zaien proposamena. Gero ez dakit txostenik dagoen.

Ascension Hormazabal Meabe: nik txosten bat egin nuen.

Arkaitz San Jose: baina ez dugu ikusi...

Joseba Vivanco Retes: niri irrigarria iruditzen zait Ascen. Eta nahi baldin badut berriro egingo dut irri.

Ascension Hormazabal Meabe:komodatu-proposamena egin zen, fundazio-proposamena, eta hori guztiori Udalak ezin duelako kontratatu berea ez den eskumen baten gainean. Hori da beti egin izan dena.

Arkaitz San Jose Martinez: Ez dela berea eskumena?

Ascension Hormazabal Meabe: ez, ondarearen titularra ez baldin bada Nola izango du bada kudeaketa lizitatzeko eskumena...?

Arkaitz San Jose Martinez: interesgarritzat jotzen duelako jendeak erakusketa bisitatzea. Zuk artista baten koadro-erakusketa bat baldin baduzu, koadroen jabeduna al zara? Ez. Bisita gidatu bat egin dezakezu? Lasai asko.

Ascension Hormazabal Meabe: legearen ikuspegitik...

Arkaitz San Jose Martinez: Baina non ipintzen du hori?

Ascension Hormazabal Meabe: kontratuen legeko 28.1. artikuluan.

Arkaitz San Jose Martinez: hori ipintzen duenez.

Inmaculada Vivanco Retes: Ascen, zergatik ez duzu txostena irakurtzen?

Ascensión Hormazabal Meabe: txostena irakurri du.

“IDAZKARITZA-KONTULARITZAREN TXOSTENA, ARTZINIEGAKO ETNOGRAFIA MUSEOA IREKI, TURISMO BULEGOKO ARRETA GAITU ETA GARBIKETA EGITEARI BURUZKOA, ARTEA ETNOGRAFIA ELKARTEAK AURKEZTUA.

AURREKARIAK



Bada 2004ko urriaren 21ean Artziniegako Udalaren eta Artea Elkarte Etnografikoaren artean sinatutako hitzarmen bat, zeinaren bidez Udalak egungo Arteko Aldapako 12. zenbakian kokatzen den antzinako Karmeldarren Ikastetxe zaharra modura ezagutzen zenaren udal jabetzako finka lagatzen baitu, Artziniegako Etnografia Museoa berrireki dadin, Udalak beregain hartzen dituelarik eraikin multzoaren eta finkako gainerako sailaren mantenu- eta kontserbazio-lanen gastuak.

Artea Elkarte Etnografikoak Hitzarmenaren arabera Museoan burutzeko jardueren kudeaketa osoa beregain hartzen du, haren funtzionamenduaren arduradun izanik, Museoaren kudeaketatik eratorritako gastuak osorik beregain hartuz eta Udaletxean hilerio saldutako sarreraren eta bildutako diruaren zenbatekoari dagokion diru-sarreraren zerrenda entregatzeko betebeharrarekin. Udala, bestalde, "diru-laguntzak" izeneko hirugarren klausulan beregain hartzen du, ekitaldi ekonomiko bakoitzean esleipen ekonomikoa eginez, Elkarteari diru-laguntza bat emango diola baitaratzen duen osoko kudeaketa burutu dezan. Adierazten da klausula hori 2004ko abenduaren 31n berrikusiko dela eta data horretatik aurrera, urtero, bisitari kopurua egiaztatu eta, horrenbestez, langileak kontratatzeko gastuak finantzatzeko diru-laguntza finkatze aldera, hura planteatzen diren beharrezkoen arabera gauza dadin. Horretarako, Artea Elkarte Etnografikoak diru-laguntzaren xede den burututako jarduerak bakoitzari dagozkion gastu eta diru-sarreraren laburpena eta fakturak aurkeztuko ditu sei hilean behin, dagozkion egiaztatutako atxikiz.

Helburua honen finantzaketa da:

- Museoak eta Elkartea hartzeko eraikin multzoa mantendu eta kontserbatzeko gastuak.
- Higiezin horietan inbertsioa egiteko gastuak.
- Artea Etnografia Elkarteari museoko jarduerak eta lehendabiziko puntuan deskribatutako estatutuetako gainerako xedeak burutzeko diru-laguntza ematea.

Horretarako, Udalak, Hitzarmenaren hirugarren klausulan, konpromisoa hartzen du ekitaldi ekonomiko bakoitzeko dagokion aurrekontu-aplikazioan esleipen ekonomikoa eginez, Artea Etnografia Elkarteari diru-laguntza bat emateko, burutzeko jarduerak osorik kudeatze aldera.

Gainera, Artziniegako Udalak Museoaren eta Elkarteari egoiztara bideratutako eraikinak mantendu eta kontserbatzeko gastuak beregain hartzen ditu eta baita higiezin horietan egiten diren inbertsioen gainekoa ere.

Artea Etnografia Museoak enpresa bati esleitu zion giden eguneroko irekiera 10 urtez, gaurdaino luzatu dena.

Artea Etnografia Elkarteari, 2018ko abuztuaren 21ean Hitzarmena aldatzeko proposamena aurkeztu zuen, eduki honekin:

- Udalak burutu dezala Museoaren kudeaketa osorako **lizitazioa** bisita gidatu eta didaktikoekin, Turismo Bulegoa irekiz eta Museo Multzoa osatzen duten bi eraikinak garbituz, **zerbitzu guztien kostua beregain hartuz** betiere, ez bada laguntzarik jasotzen beste erakunde batzuen aldetik
- Lizitaziorako oinarri eta arauak Etnografia Elkarteari eta Artziniegako Udalaren artean adostu daitezela.



- *Artea Etnografia Elkarteak, Hitzarmen berria indarrean den bitartean, erakusketa mantendu eta hobetzeko konpromisoa hartzen duela eta lizitatutako zerbitzuen esleipendun den enpresak egindako lana kontratua betez egin dadila arduratuko dela.*

Azaldutako aurrekariekin lotuta, horiek ebazteko hurrengo alderdi juridiko eta aurrekontu arlokoak planteatzen dira:

LEHENEA. *Museoa Udalaren aldetik osorik kudeatzeko kontratuaren lizitazioa.*

Udalaren eta Etnografia Elkartearen artean dagoen lotura bi aldeen artean dagoen hitzarmena da.

Elkartearen asmoak, Udala izan dadin lizitazioa burutzen duena, berekin dakar aplikagarri den araudia betetzea, kasu honetan Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea, eta zehazki hartako 28.1. artikulua, non ezartzen den "sektore publikoko erakundeek ezingo dute beste kontraturik egin beren erakunde-helburuak betetzeko beharrezkoak diren aparta".

Beraz, ezin da Udalaren aldetik lizitatu Museoaren kudeaketa osoa bisita gidatuak, Turismo Bulegoaren irekiera eta Museo Multzoko bi eraikinen garbiketa barne, izan ere, ez da berezko eskumena museoak ez baitu Udalaren titulartasuna.

BIGARRENA. *Udalak eskumena beregain hartu eta zerbitzua lizitatuz gero, kontratu honek, bere zenbatekoa kontuan izanik, eragina izan lezake aurrekontu-egonkortasunean eta finantza-iraunkortasunean.*

Azaldutakoa aintzat hartuz, ikusi behar da hurrengo,

ONDORIOA

Udalak Etnografia Museoaren kudeaketa beregain har dezan Euskadiko Tokiko Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.20) artikuluan, kultura eta kultura jarduerak nahiz ekipamenduen kudeaketa antolatu eta sustatzearen barruan, jasotzen den berezko eskumen modura, aldeztu aurretik museoaren funtsen inbentarioa eta horiek Udalarik laga eta haren esku uztearen gainekoak izan beharko ditu.

Horrenbestez, Artea Etnografia Elkarteak egindako proposamena, 2018ko abuztuaren 21ean udal Erregistroan sartu zena, ez da indarreko legearen arabera.

Arkaitz San Jose Martinez: nik 2/2016 zenbakiduna ez dut ikusi baina 9/2017 zenbakiduna bai, eta erakunde-helburuak nahiko anbigua dela iruditzen zait, obra batzuk erakusgai ipintzea erakunde-helburutzat har daitekeela ulertzeko. Hau da, hemen Arabako Aldundia bisita antzeztuak eskaintzen ari da Artziniegan, eta nik dakidala etxeak ez dira eurenak, eta kaleak ez dira haien jabetzakoak, zerbitzua eskaintzen dute besterik gabe interesgarria iruditzen zaielako jendeak Artziniega ezagutzea.

Alkatea: beno, ez da Aldundia, Kuadrilla da.

Arkaitz San Jose Martinez: bale, Kuadrilla, Aldundiaren funtsekin ere bai. Gure ustez, nik berriro diot, ez dut inon ikusi... zuk ezartzen duzun zerbitzua ezartzen duzun zerbitzua da, halaxe iruditzen zait niri, ez naiz jarriko ezta kontu legetan Udaleko Idazkariaren gainetik, baina...

Alkatea: zerbitzu juridikoek eratu duten udalbatzaren akordio-proposamena dugu eta Idazkaritzak txostena dugu, egokitzen jotzen baduzue, bozkatu egingo dugu.



Arkaitz San Jose Martinez: Eztabaidarik gabe? Beno, ados.

Alkatea: ez, agerraldien txanda bat izan da dagoeneko, ezta?

Joseba Vivanco Retes: niri hitz egitea gustatuko litzaidake. Segundo bat izan ahal badugu izango dugu, bestela zuk agindu eta gu isildu.

Alkatea: txanda bat izan da dagoeneko.

Joseba Vivanco Retes: bai, bai, baina beste agerraldi bat egon badaiteke, bada egon bedi, bestela bada ezer ez. Zuk agintzen duzu. Zu zara osoko bilkura kudeatzen duena eta honek nola funtzionatzen duen agintzen duena.

Alkatea: bada, egin agerraldia.

Joseba Vivanco Retes: lehenik eta behin, tira, zer-nolako ustekabea aurkitu dugun osoko bilkuran idazkaritzaren txostenarekin. Tira to! Honek Artearekin izandako azken bilkura dakarkit gogora. Bertan, Josebak esaten zuen moduan, aldez aurretik ohartarazi egin behar zitzairen zer jorratu behar zen eta Alkatea iritsi zen eta orri bat bota zien han zuzenean. Guk EAJ taldeak egin zuen proposamena berrikusi dugu. Orain arte, Idazkaritzak txosten bat aurkezten duen une honetara arte, guk defendatu izan dugu guri, eta guztiok dakizue, batzordeetan, norbaitek dokumentu bat, araudi bat, lege bat, idatziren bat aurkeztea adieraziz Udalak ezin zuela lizitatu giden zerbitzua baldin eta "jabeduna" ez bazen edo piezak lagata ez bazituen. Hilabeteak eman ditugu horrela. Hemen inork ez du paper ziztrin bat ere ekarri. Ez, ez, ezin zen eta. Ascenek esaten zuen "esan dugu, esan dugu", bai, bai, guztiok esan dugu. Eta esan dugu, beno, norbaitek zerbait aurkez dezala. Eta orain arte inork ez du deus aurkeztu. Argi gera dadila. Hori da lehendabiziko gauza. Horrenbestez, aldez aurretik lagapen bat egotea eskatzea, hasiera batean hemen inork ezer aurkeztu ez duenean, bada tira, nik hau eta bestea eskatu baina argudiorik, paperik, ezer ez atxikitzea bezala da. Bikain. Ondoren hemen hitz egiten da, akordioan inbentarioa aipatzen da. Guk Arteari galdetu diogu EAJ alderdiak aurkezten duen honetan oinarrituz, inbentariarik ba ote den. Esan digute hasiera batean inbentarioa ez dagoela eginda. Inbentarioa ez dago osorik eginda. Inbentarioa egiten ari dira. Egiten ari dira, egiten ari diren denbora beharko baitute, eta ez dago amaituta. Horrek zer esan nahi du, inbentariarik ez dagoenez hitzarmenik ez dela egongo, lizitaziorik ez dela egongo, eta Museoa urtarrilaren batean itxi egingo dela? Hemen inbentario bat egotea eskatzen da. Inbentariarik ez badago, hemen ondareen inbentario bat egon behar dela ipintzen ari zarete.

Ascension Hormazabal Meabe: museo guztietan bezalaxe.

Joseba Vivanco Retes: bai, bai, bikain.

Alkatea: bai, baina, Euskadiko museoen erregistroan egoteko ez al da beharrezkoa?

Joseba Vivanco Retes: bikain, bikain.

Arkaitz San Jose Martinez: amaituta ez.

Joseba Vivanco Retes: ez, ez dago amaituta. Guk galdetu egin dugu, ez dago amaituta, bikain, orduan tira, kito, izan ere, inbentariarik ez dagoenez, horrek esanahi du hemen ez dagoela hitzarmenik, pentsatzen dut. Ondoren arreta eman dit asko eta horren inguruan galdetzea gustatuko litzaidake, zera esaten baita "Udalak sarrerei dagozkien zenbatekoak jasoko ditu eta horien gaineko kontrol zorrotza egingo du". Udalak egiten dituen kontratu guztiak berrikustekotan nago, ikastaroak, jolas txokoak, Guraso-elkarteak, elkarteak, bizikletentzako diru-laguntzak, hartarako diru-laguntzak, bertan ipintzea kontrol zorrotza egingo dela, batez ere, Udal honek akatsik badu, zera baita, gauzak esleitzen dituenean paso egiten duela gauza guztiekin. Udal ikastaroekin gertatzen den eran, ondoren enpresak nahi duena egiten baitu eta hemen inork ez du ezer berrikusten. Eta horrela milaka gauza, non inolako jarraipenik ez den egiten. Dorrea izan dugu, funtzionatzen aritu den arte, izan dugu ez dakit zer eta badakit zer, eta inork, inork ez zuen begiratzen, errespetatzen, betearazten eta errespetaraztea sinatzen zena. Eta bat-batean hemen sarreren gaineko kontrol zorrotza aipatzen da. Zer esanahi du, orain arte Arteak tranpa egiten zuela? Bada, hala bada, esan bedi. Edo esan bezate haiek. Ondoren, EAJ alderdia tematu egiten da, izan ere, tematu egiten da Arteak Elkarteak jarraipen bat egitea proposatzen duenean, ez dakizkit zehazki, gida horien esleipendun diren enpresen funtzionamenduen zerak. Berriro diot, eta Udalak ezetz esaten du, hori Udalak egiten duela hura delako kontratatzen duena, berriro diot, zuek Gobernuko talde modura giden enpresa horren funtzionamenduaren kontrola eta jarraipena egiteko gai zarete, nola funtzionatuko duen,



nola azalduko duen, nola jorratuko duen, guztia nola egingo duen ikusteko? Lan hori egiten 40 urte daraman Elkarte bat dagoenean. Zuek eskua sartzen al duzue dantza ikastaroak egiteko moduan, ez dakit zerenak, eta ez dakit norenak? Udalak bete behar dena betetzen dela zainduko du, ordutegiak, lana... Baina nire ustez hemen Arteak planteatzen duena zera da, museoa 40 urtez funtzionatzen ari delarik, proposatzen duena da funtzionatzeko moduaren gaineko jarraipena berak egitea da. Erabiltzen den metodologia, nola... ez dakit. Hots, ez dadila enpresa berri bat iritsi eta hura hankaz gora ipini, aizu, agian egin dezake. Eta goitik behera azaltzen hasten da, edo behetik gora, edo bisitek esaten dute "begira honaino eta orain jarraitu zuk bakarrik." Nire ustez Artearen asmoa da bat-batean ez iristea giden edo dena delakoaren enpresa berri bat eta bat-batean 40 urteko lana amiltzea, oro har, gutxi gorabehera lan ona egin dela uste baitugu, eta lan ona egiten jarraitzen dela. Nik uste dut ildo horretatik doala. Ez esateagatik zuk hau, zuk... Nire ustez Udalak hemen, gu behintzat ez gara gai ikusten bat-batean Museoari esaten hasteko nola funtzionatu behar duen, nola azaldu behar dituen gauzak eta nola jardun behar den. Eta uste dut hori adierazi nahi duela Arteak. Orduan hiru puntu horiek aztertu ditugu, eta honetan berriro sartzekak blokeo horretan jarraitzea baino ez duela ekarriko ikusten dugu, orduan ezetz diogu. Orduan, horregatik aurkeztu dugu mozioa. Eta berriro diot, osoko bilkuran gai hau topatzen dugu era berean eskatzen denean, Idazkariak txosten bat egiten du esanez Udalak ezin duela giden zerbitzua lizitatu piezak lagata ez baditu...

Ascension Hormazabal Meabe: eskumenik ez badu...

Joseba Vivanco Retes: pieza horien gainean eskumenik ez badu...

Ascension Hormazabal Meabe: piezen gainean ez, eman behar duen zerbitzuaren gainean. Titularra ez bada, nola kontratatuko du?

Joseba Vivanco Retes: ea, gu pieza horiek lagatzeaz hitz egiten ari gara. Udalak dio pieza horiek laga behar dituztela zerbitzua lizitatu ahal izateko.

Ascension Hormazabal Meabe: bai.

Joseba Vivanco Retes: bada hori, horixe da esaten dena, lehendabizi lagapen bat egon behar dela ondoren lizitatzeko, bikain. Baina, txosten hori aurkezten ari zara gure aurrean irailaren 20an Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazioko Kontsulta Batzorde izeneko organismo bati egin ote daitekeen galdetzen aritu zaretenean.

Ascension Hormazabal Meabe: ez didazu erantzun. Baina beste kontsulta bat egin diot beste erakunde bati, beste datu-base bati eta ezin daiteke egin.

Joseba Vivanco Retes: ezin daitekeela egin, bikain.

Ascension Hormazabal Meabe: izan ere, idatzia abuztuaren 21ekoa da eta niri Alkateak joan den astean esan zidan gai horren inguruan txosten bat egiteko. Eta hori da arazoa, esaten ari naiz, nik uste dut arrazoi duzula esatean idatziz ez dela esan, baina komodatu bat aipatu da, fundazio bat, eta horrek erabilera lagatzea inplikatzeko du lizitatu ahal izateko, eta idatziz egin behar da...

Joseba Vivanco Retes: tamalgarria dena...

Alkatea: beno, Joseba, egin duzu zure agerraldia.

Joseba Vivanco Retes: berehala amaituko dut. Tamalgarria da apiriletik, lehendabiziko aldiz Arteak eta Udalaren arteko bilkura batean, hitz egiten hasi zirela Udalak giden zerbitzua lizitatzeko zerbitzua beregain hartzearen inguruan, apiriletik, bat-batean urrira iristen gara eta ezin daitekeela egin adierazten duen lehendabiziko txostena izatea. Baina txosten horrek hurrengo astean prest egin behar zuen dagoeneko. Eta ordutik hilabete hauek guztiak pasa ditugu, ergelarena egiten. Gero urrian itzultzeko otsailan edo martxoan hasi genuen hartara. Horrela da eta, abiapuntuan gaude, urte osoa galdu dugu eta urtarilaren batean hemen inork ez daki zer gertatuko den.

Alkatea: zuk Joseba, zerbait esan nahi duzu?



Joseba Elejalde Ribacoba: nik ohar bat, gainera honekin lotura duen ohar bat. Udalaren aldetik lizitazioa egitearen kontua hasiera batean Artea Etnografia Elkarteak azaltzen duen zerbait da, izan ere, haren ustetan Udala da hori lehiaketara atera behar duen Administrazioa, horrela haiek ere arazo larri bat kentzen baitute gaineratik zerbitzu horren finantzaketari dagokionean. Eta guztiok une jakin batean, guztiok, akordio bat erdietsi genuen Udal honetan, aukera onena lizitazioa Udalak egitea zela adieraziz.

Alkatea: eta Elkarteak proposatu zuen.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, ez, hori esango dizut. Elkarteak proposatu eta guk proposamen onena dela onartu genuen. Baina hau dator, izan ere, Elkarteak irekiera-kontratua berak lizitatzen jarraitzea ere proposatu zuen, betiere, Artziniegako Udalak museoaren irekiera eta haren mantenuan funts publikoekin abalaturako balu ekonomikoki hitzarmenak irauten zuen bitartean. Eta hemen esan zen ez ginela gai esateko, edo azpimarratzeko, edo sinatzeko hitzarmen berri hori. Orduan, azkenik, esaten hasi ginen Udalak hartuko ote zuen beregain irekiera, eta orduan hor tematu ginen. Eta hor datoz arazoak, izan ere, hasiera batean zuk Museoari esaten badiozu "aizu begira, orain arte bezala jarraituko dugu, 2005-2014 bitartean bezala, izan dugun hitzarmenari dagokionez berri bat idazten da 2018an, une horretan, 2028 bitartekoa", hiszapaketa berri batzuekin, eta bertan adieraziz Artziniegako Udalak konpromisoa hartzen duela Museoaren irekiera funtsekin abalatzeko, eta Etnografia Museoari bermatzen diola ez duela abal modura berezko ondarea ipini beharko, eta hor kalkulatu ezin den lana egiten ari diren langileei, bada agian une honetan ez ginen aritu beharko eztabaidatzen piezak laga behar ote dizkiguten edo piezak laga behar ez ote dizkiguten. Talde guztiak ulertu genuen onena zela Udala izatea museoaren irekieraren kudeaketa lehiaketara ateratzeaz arduratuko dena. Zortzi hilabetez itzulinguruka ibili gara. Gaurdaino inork ez zigun helarazi planteatzen zen edo museoak planteatzen zuen moduan egin ezin zitekeela zioen ezer. Gaur osoko bilkura honetara bideragarria ez den txosten juridiko bat ekartzen zaigu. Eta datorren hilean arazo berdinarekin jarraituko dugu. Orduan egin dezagun gauza bat, nik hemen proposatzen dut museoari esatea "zuek lizitatu eta guk konpromisoa hartzen dugu lau urtez ekonomikoki ordaintzeko Artziniega Etnografia Museoaren kostuari dagokion zenbatekoa. Oinarri batzuekin, museoaren irekiera 70.000 edo 72.000 euroren bueltan ibiliko da, hori baita Aldundiak egindako txostenean jasotzen zena, eta ondoren beste partida bat gastu orokorrena, hots, mantenua, argia, ura, telefonoa... eta jarrai dezala museoak orain arte bezala funtzionatzen. Eta bestela urtarrilean arazo berdinarekin egongo gara. Lizitatu gabe, aurrekontu-partidarik gabe, enpresa auskalo non, eta Artea Etnografia Elkarteak hartzak estututa eta hatzaparrak zorrotz. Ez dut beste ezer esateko.

Alkatea: beno, uztailaren 24an gutun bat igorri genuen, Elkarteari gutun bat igorri nion. Bertan idatziz adierazten nuen, ekainaren 7ko bilkuran agerian geratu zen moduan, museoaren kudeatzeko aukera ezberdinak daudela. Udalaren aldetik zuzenean edo patronatuak kudeatutako fundazio baten bidez. Edozein kasutan, alde batetik Udalak higiezina ematen du eta beste alde batetik Elkarteak bilduma ematen du. Beraz, ezinbestekoa da bildumaren lagapena irudi baten bidez, esate baterako, komodatuaren bidez, artikulatzea. Badirudi irudi horrek ez duela konfiantzarik ematen, baina tira, badira zenbait gauza egia esatera, inon ez dela agertzen diozue...

Joseba Elejalde Ribacoba: Iñigo...

Alkatea: utz nazazu hitz egiten mesedez.

Joseba Elejalde Ribacoba: gaia jorrazteko modua da konbentzitzen ez duena.

Alkatea: Utz egin didazu hitz egiten mesedez?

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, barkatu.



Alkatea: esaten dut hemen esaten dela zer den komodatuaren irudia, eta badira agerikoak diren gauzak. Jakina altzari bat uzten badizute, balio jakin bat duen ondare bat uzten badizute, nik uste dut alde guztien bermeari so lagatzearen akordio bat egon behar dela, akordio horretako lagatzearen baldintzak eta jabetzako ahalmena nik dakidala, eta erantzukizuna zerbait gertatzen bada ere. Uste dut garrantzitsua dela, baina tira. Baina besterik gabe. Ondoren esaten duzu formak ez direla errespetatu, mesfidantza aipatzen duzu, bada beno, litekeena da mesfidantza egotea bi aldeen aldetik, ez dakit, eta uste dut ez dela oraingoa, baizik eta nire ustez 2004az geroztik dagoeneko bada nolabaiteko mesfidantza soilik 2004ko hitzarmeneko baldintzetan erreparatuta. Baina tira. Orduan bozkatzeari ekingo diogu.

Inmaculada Vivanco Retes: itxaron nik gauza bat esan nahi nuen, nik uste baitut ez dela gaiaren inguruan aurkeztu den txosten juridiko bakarra, izan ere, uste dut, eta zuzendu bestela, aholkularitza juridikoak txosten bat aurkeztu duela. Beste gauza bat da lehen txostena gustuko izan ez duenak baliozkotzat eman ez izana. Oraintxe bertan ez dakit data baina nik uste dut aholkularitza juridikoaren aldetik txosten bat aurkeztu dela, eta proposamen gehiago izan direla. Beraz, Josebak adierazi duenarekin ere ez nator bat, hots, Udalak, Gobernuko taldeak, ezer egin ez duela esan duenean, izan ere, gai honekin lanean darama aipatu duzuen denbora eta baita denbora gehiagoan ere.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik ez dut esan lan ez duzuenik egin. Nik esan dudana da ekintzarik eza datorrela hartutako eta Gobernu Batzarrak edo Batzordeak onartutako akordioak ez zaizkiolako Artea Etnografia Elkarteari helarazi ez denbora egokian ez modu aproposan. Eta hori horrela da. Eta inork ezingo dit horren inguruko egia kendu. Eta are gehiago, eta berriro diot, baten bati ahaztu bazaio ere. Iñigori esan nion "Iñigo, zuk hots egingo diozu Etnografia museoari edo nik deituko dut?". Iñigok hitzez hitz esana "nik deituko dut". Astebete beranduago osoko bilkura izan genuen.

Alkatea: horretara itzuliko al gara?

Joseba Elejalde Ribacoba: ez hanka ez buru ez zuen gauza bat onartu zen, edo ez zen onartu, eta azkenean bilkura bat izan genuen, museoarekin osoko bilkura amaitu eta berehala, eta bertan lehen aldiz helarazi zitzaizen komodatu-kontratua. Mahai gainean utzi zitzaizen, tira azter ezazue. Horrela jada, zuk bigarren alde bat zurekin akordio batera iristea nahi baduzu, bada ez dut uste akordio batera iristeko modurik onena denik, ezta kontratu batera ere, ezertara ez.

Alkatea: berriro irakurriko dut erreferentzia xedapen zatian ekainaren 7ko osoko bilkurako akordioaren baldintzen, hartatik kendu baitziren. "2019ko ekitaldirako eta hurrengoetarako proposatzen da..." berriro diot "proposatzen da", ez da akordiorik hor, "museoaren kudeaketa Artziniegako Udalak beregain hartzea, giden zerbitzuaren lizitazioa eginez, museo-jarduna bultzatuz, Artziniega Etnografia Museoaren jarraikortasuna bermatzeko moduan." Berriro diot, proposatu egiten da, eta hori kendu egin zen.

Joseba Elejalde Ribacoba: zuk osoko bilkura honetan gauza bat proposatzen duzu Iñigo, Artea Etnografia Museoarekin adostu gabe.. Zertarako balio dit niri hori onartzea ondoren Artea Etnografia Museoarekin elkartu eta esaten badit irudia...

Alkatea: proposatu egiten da, ez du inolako balio juridikorik.

Joseba Elejalde Ribacoba: berdin da ordea. Nik osoko bilkura onetan onartu behar dudana gauza bat ari zatzaizkit proposatzen. Zuk osoko bilkurara ekartzen didazu onar dezadan. Bada hori batzorde batean proposatu eta batzorde horren inguruan lantzen da lan-mahai batean. Zuk osoko bilkurara dokumentu bat ekartzen didazu hori egitea proposatuz, bada proposatu, oso ongi iruditzen zait, zuk hemen proposatu, eta nik esango dizut, eta zertarako onartu behar duzu gauza bat beste aldea ados dagoen jakin gabe? Zertarako etorri behar naiz osoko bilkurara



puntu bat ekartzera azkenean beste aldeak ezetz esango badizu, ez dagoela ados? eta datorren hilean osoko bilkurara etorri beharko gara aurreko hilean onartu duguna ez den beste puntu bat onartzera. Zentzugabea da ordea. Lehendabizi akordio batera iritsi beharko zara Artea Etnografia Elkartearekin, eta behin akordio hori...

Alkatea: berriro diot, proposatu egiten da, proposatu, proposatu egiten da, ez dakit zein den eduki berria edo proposaturen kontzeptu berria. Badirudi betikoarekin alderatuz ezberdina dela. Beraz, aizu, tira, Bilduren mozioa bozkatuko dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik galdera bat egin nahi dut, izan ere, azkenean...

Alkatea: bozkatzen ari gara jadanik Josena.

Joseba Elejalde Ribacoba: eskaera bat egin ahalko diot Asceni. Txosten honen inguruan baieztatu bozketa batekin berekin ekar dezake nolabaiteko...? Noski, izan ere, azkenean, gaur hori helarazten didazu, eta ez dakit bidegabekeria bat egin dezakedan sinesten dudan eta erabat ados nagoen kontu baten aldeko botoa emanez. Izan ere, orain zuk esaten didazu bozkatzen ari naizela, begira zein polita, hau aurkeztu dizuegu, orduan nik Asceni galdetu nahi diot ea Artziniega Etnografia Museoak proposatu duenaren aldeko botoa ematearen jarrera hartuz, Alderdi Popularra, eta kasu honetan Joseba Elejalde, hura baita bozeramailea, bidegabekeriaren bat egiten ari ote den. Bestela abstentzioa eman eta lanean jarraitu beharko dut. Argi dago ordea, hau txundigarria da, bozkatzen ari zara, noski bozkatzen ari naizela, eta galdetu beharko dut lege bidegabekeriaren bat egiten ari naizen ala ez. Izan ere, orain nik ez dakit bidegabekeria bat egiten dudan ala ez, orduan galdetu egiten dut. Ascen erantzun ahal badidazu...

Ascension Hormazabal Meabe: bai

Joseba Elejalde Ribacoba, ados, bikain, bada abstentzioa emango dut kontu horretan nire iritzia aurka bada ere.

Alkatea: orduan Bilduren proposamenarekin...

Bozkatu egin da:

Kontran:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ alderditik (4);

Abstentzioa:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Aldeko botoak:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (4).

Ez da onartzen, Alkatearen kalitateko botoarekin.

Joseba Vivanco Retes: Orduan ez da ateratzen?

Ascension Hormazabal Meabe: ez, Alkatearen kalitateko botoa aplikatzean.

Alkatea: begira igorri zaizuen proposamenari.

Joseba Vivanco Retes: begiratu dugu.

Arkaitz San Jose Martinez: Iñigo, baina proposamen honek Artea Elkartearen oniritzia ba al du? Horri baietz esango al diote?

Alkatea: helarazi egin diogu. Orandik ez dakigu bai ala ez.

Arkaitz San Jose Martinez: badakizu eta, inbentariarik ez baldin badago...

Alkatea: bada orduan inbentariarik ez baldin badago beste zerbait pentsatu beharko da.

Arkaitz San Jose Martinez: ikusi ditut nik lizitazioak, non museoko giden zerbitzuarekin batera enpresari inbentarioa egiteko eskatzen zaion, horrenbestez, ez da ezinbesteko betekizuna inbentarioa izatea. Zehazkiago, Eibarreko armen museoa lizitaziora atera zen bisitatu egiteko 2016an, eta inbentarioa egiten jarraitzeko.

Alkatea: begira Arkaitz, zerbitzu juridiko baten aholkularitza baldin baduzue eta esaten ari bazaizue izan daitekeela...



Arkaitz San Jose Martinez: ez, nik interneten begiratu dut.
Alkatea: bada begira, bada nik eskertuko nizuke nola esango bazenigu.
Arkaitz San Jose Martinez: ez, nik Googlen begiratu dut.
Alkatea: agian izango da gu ez garela iristen. Eskertuko nizuke.
Joseba Vivanco Retes: edozein modutara urtarrilaren 1ean elkar ikusiko dugu.

Maria Lorente Burgos zinegotzia osoko bilkuren aretotik irten da 19:55ean.

8. Alkatetza-ebazpenen berri ematea

Alkateak, Idazkariaren laguntzarekin, 151 eta 195 bitarteko dekretuen berri eman du.

Alkatea: Zerbait galdetu nahi duzue?

Alazne Lafragua Ureta: bai, bada bat, 163. zenbakiduna, antzinako azokarako kreditu gehigarriari buruzkoa. 3.000 euro daude. Hori zerena da? 3.000 euro gehiago daude soberakinetik irteten direnak antzinako azokarako kreditu gehigarri bat dagoelako. Hori zeren ondorio den jakitea gustatuko litzaidake.

Alkatea: bai, soberakinaren kontura finantzatzan da baina egiaz Aldundiaren diru-laguntza bat egongo da Kuadrillaren bidez.

Alazne Lafragua Ureta: hots, 3.000 euro horiek Kuadrillaren diru-laguntza batekin berreskuratu egingo direla suposatzen da?

Alkatea: bai. Kuadrillaren diru-laguntza ez, Aldundiarena.

Alazne Lafragua Ureta: ados orduan, ba al dago azokari buruzko gogoeta egiteko asmorik edo halako konturik? Horretaz hitz egiten ari garenez. Edo hurrengo punturako utziko dugu?

Alkatea: hurrengo punturako utziko dugu. Besterik?

Berlaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

9. Udal kudeaketaren kontrola.

- Iñigo Gomez Unzueta: badira aipatu nahi ditudan bi gauza, irailean izan ditugunak eta garrantzi handi samarra dutenak. Kontuetako batek Gordeliz, Benta eta Erreta auzoetan ur hornidurarekin izan diren arazoekin du zerikusia, non, analisiak gaizki ateratzen zirela ikusita, eta beheran sareak garbitu arren hasieran ongi egon arren ondoren analisiak gaizki irteten baitziren zonalde batzuetan, ur gordinaren hornidura eten eta tangen bidez hornitzen hasteko berehalako erabakia hartu zen, eta behin-behineko aire bidezko hoditeria bat gauzatzea San Antonio Gordelizeko deposituarekin lotzeko. Hoditeria hori amaituta dago jadanik. Hoditeria horren instalazioaren gainean ondoren egin diren analisisiek emaitza ona eman dute, orduan bada, auzo horiek dagoeneko Artziniegako UETE estazioko urarekin hornitzen dira. Behin betiko hoditeria-proiektua idazteko fasean gaude, epe modura 2020. urteko urtarrilean amaituta izatea finkatu dugu, nik uste dut lehenago izan daitekeela, eta edozein kasutan, auzotar horiek dagoeneko urtegitik ur gordina jasotzeari utziko diote, UETE estaziotik ari dira ura jasotzen, eta behin betiko hoditeria dugun unean, nabarituko duten bakarra zera da, egun batez ura etengo da behin-behineko hoditeria behin betiko hoditeriarekin aldatzeko. Behin betiko hoditeria dugun unean behin-behineko hoditeria kenduko dugu.

Eta ondoren, apur bat, aipatu baita kontu bat, TTA enpresaren gaia, aparte utzita hilaren 23ko osoko bilkuran aipatu genuela uztailaren 20an Inma eta biok enpresako zuzendaritzarekin izan ginela apur bat kezka helarazte aldera, eta jakitea enpresa batzordea irailaren 3an Arabako Aldundiaren ekonomia sustapen eta lurralde oreka Diputatuarekin elkartu dela, eta atzo, abuztuko hilabetea igarota eta enpresan sindikatu-hauteskundeak ospatu ondotik



negoziazioak berreskuratu direla enpresa batzordeak parte hartu zuen mahai batean, enpresaren ordezkari modura jakina, eta baita Eusko Jaurlaritzako Lan Saila, eta atzo hainbat gai adostu zituzten, esate baterako, malgutasuna eta balioaniztasuna eta beste bilkura bat egitekotan geratu ziren datorren hilaren 8rako, eta aurreikuspena soldata-baldintzen inguruan hitz egitea da. Bihar ere agerraldia dugu Batzar Nagusietan.

- Alazne Lafragua Ureta: bada ezer ez, hitz egiten ari ginena, antzinako azokaren bilkura, ea berrikuspenen bat egiteko asmorik dagoen, edo eredu berarekin jarraituko dugun, beste urte batera igarotzen gara berriro, aurten gogoetaren bat egiteko asmorik ote den, ez...

Alkatea: beno, nik uste dut apur bat festetan gertatzen zena gertatzen dela, ezta Inma?

Inmaculada Vivanco Retes: ni oraindik ez naiz osatu, beraz, lasai, egingo ditugu bilkurak eta balioespenak gogoeta egin ahal izateko. Eta gogoeta egiteari dagokionez gai hori eztabaidatu zen bete osoko bilkura bati helduko diot. Uste dut dagoeneko gogoeta asko egin dudala, nire iritzi partikularra e? Hori ere esango dut. Gogoeta asko egin da eta ni beti ondorio berdinerari iristen naiz, baina tira, egin dezagun gogoeta.

Alkatea: edozein kasutan lehendabiziko ikuspegi batetik uste dut azoka aurten ondo atera dela.

Alazne Lafragua Ureta: Ondo atera da? Kanpoko enpresa batekin ondo atera da?

Alkatea: kanpoko enpresa batekin ondo atera da. Nik uste dut NaparBideak...

Alazne Lafragua Ureta: orduan izango da Artziniegako Antzinako Azoka izan behar denaren inguruan ikuspegi ezberdina dugula, eta kito.

Alkatea: Uste dut NaparBideakek hasiera-hasieratik kolaboratu eta antolatu duela antzinako azoka.

Alazne Lafragua Ureta: beno, hori gustatuko litzaidakeen eztabaida bat da, baina jende gehiago egongo den leku batean, ez gaitzen gu bakarrik egon, inplikatzeko den jendea, inplikatzeko asmoa duen jendea edo inplikatzeko asmorik ez duen jendea eta berriro inplikatzen ez dena, bada jende horrek hitz egin dezan eta gaia azter dezagun. Izan ere, ni ez nator bat zuen ikuspegiarekin, hau ondo doanik ez dut uste. Ez dut partekatzen ikuspegi hori inondik inora. Ez dakit gainerakoak ados ote dauden, baina tira, ni behintzat ez. Oso ederra litzateke izatea...

Inmaculada Vivanco Retes: edozein modutan ñabardura bezala adierazi ez dela kanpoko enpresa bat izan, enpresa bat izan da Udalarekin, horrela egin da, eta gainera enpresa bera da, ez dakit lehen urtetik edo bigarrenetik, baina Artziniegako azokan hainbatetan lan egin duen enpresa bat da, ezin dut ziurtatu 21 azoketan izan den, ezin dut ziurtatu 21 azoketan izan den, baina 18 edo 19 azoketan ziurrenera. Esan nahi dizut beste edizio batzuetako formatu bera izan dela ia. Eta enpresa hori ez da soilik arduratu merkatua diseinatzeaz, inondik ere.

Alazne Lafragua Ureta: nik jarraitzen dut pentsatzen eredu egokiena...

Inmaculada Vivanco Retes: hori ñabartu nahi dut.

Alazne Lafragua Ureta: hau guztiau foro bat egiteko asmorik bat ote den galdetzeko zen, gai honi buruz hitz egiteko. Eta gauza bera Artzinietako jaietan, noski.

- Alazne Lafragua Ureta: ondoren, bilkuren gaiarekin gaudenez, noizko bilkura SR-1 zonaldearekin? Uda aurretik egiteke baitago, ea asmorik ote dagoen baita ere...

Alkatea: bada, begira, pleguan zirriborro bat dugu, irailaren 6an entregatua. Eta onartu beharrean gaude.

Alazne Lafragua Ureta: beraz, bada asmo txiki bat...

Alkatea: obrak egikaritzeko pleguen zirriborroa.

Alazne Lafragua Ureta: ados.

Alkatea: bilkura bat ere egin beharrean gaude atera ahal izateko, baina plegua dugu, pleguaren zirriborroa, irailaren 6ko datarekin.

- Alazne Lafragua Ureta: pinudiari dagokionez, pinuak duen onddoari dagokionez, ez dakit konturatu zareten baina hainbat mendi ditugun onddoak erasanda. Badakit oraintxe bertan ez dagoela erremediorik hori tratatu edo dena delakoa egiteko, baina gustatuko litzaidake jakitea Aldundiarekin hitz egin ote den pinudiaren egoerari eta duen eraginari buruz.



Alkatea: basozainak niri esan dit, momentuz hemen ez dagoela erasanda.

Alazne Lafragua Ureta: bada, Pandoa ederra dago.

Alkatea: bada niri basozainak.

Ascension Hormazabal Meabe: Baina onddoa da edo pinu-beldarra da?

Alazne Lafragua Ureta: denetik dago.

Alkatea: pinu-beldarrari dagokionez Aldundiak baieztatu digu aurten tratatuko dela. Baian esaten dizut, niri basozainak esan dit ez dagoela ez zerrenda marroirik ez zerrenda gorririk. Momentuz salbu gaudela, irits daitekeela.

Alazne Lafragua Ureta: bada, a zer itxura duen. Ni ez naiz aditua inondik ere ezagutzan, baina itxura arraroa eta txarra badute behintzat. Gainera gaizki antzera dago, orbelak erori egin dira guztiak, erori egiten dira...

Alkatea: Zuhaitz guztian du eragina?

Alazne Lafragua Ureta: ez dut horretan erreparatu.

Alkatea: ez, izan ere nik ikusi egin dut eta gauza bera galdetu nuen, eta esan zidaten ezetz, zerrenda gorriak, zerrenda marroiak zuhaitz guztian duela eragina, osorik ikusten duzu, baina adar berdeak baldin badaude, hori prozesu naturala da.

Alazne Lafragua Ureta: Adarrak baldin badaude?

Alkatea: adar berdeak baldin badaude.

Alazne Lafragua Ureta: Eta hau osorik baldin badago...? Ados, begiratuko dut.

Alkatea: nik esan didatena esaten dizut, ez dut gaia kontrolatzen eta.

- Alazne Lafragua Ureta: beste bat. Irailean gaude eta oraindik obra andana dago burutzeke, aurrekontuan zeudenak. Gustatuko litzaidake jakitea horiei ekiteko asmorik dagoen, esate baterako, Barratxi bidea, larreko hesia, eta besteren bat, edo helburua soberakina pentsaezinezko mailetara areagotzea ote den.

Alkatea: bada baditugu zenbait burutzeke eta egia esatera uztailean eta irailean pleguak eratzen aritu gara, aurrekontuekin... egia esan leporaino gabiltza. Badakit ez garela guztietara iristen...

Alazne Lafragua Ureta: Barratxi bidea eta larrearen hesikoak ordea aurretik datoz. Soberakina oso ongi ari gara gizentzen.

Alkatea: soberakinean dugu orain, zenbat zegoen erabilgarri? Berrehun eta berrogeita hamar mila euro, milioitik.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, baina aurrekontuan kontsignatuta egongo delako, baina horrek ez du esanahi egikaritzen ari denik.

Alkatea: beno, funtsean sustatu behar dugun Foru Planeko obretan dugu.

Arkaitz San Jose Martinez: hori urtero gertatzen da, eta egikaritzen ez bada hurrengo urtera igarotzen da.

Alkatea: beno, bada soberakina dugu eta hori egin dezakegu, sustatzen joan gaitetzke.

- Unai Gotxi Kastrexana: nik Iñigo galdetu nahi nizun ea konpondu den Palacioko parkingeko irteerako ispilua, apurtuta zegoen eta.

Alkatea: uste dut ezetz. Ez, baina hori auzotarrek konpondu beharko dute. Aldundiak ipini zuen lehen bazegoelako bat, obran zehar kendu egin zen, eta beste bat ipintzeko eskatu zuten.

Unai Gotxi Kastrexana: baina bi zeuden.

Alkatea: beno baina handi bat ipini zen. Ez dakit, ez da kexu orokorrik egon ispiluarekin. Egia da apurtuta dagoela, baina eskatu digute era berean...

Unai Gotxi Kastrexana: espaloian dago.

Alkatea: bai, bai, espaloian dago, baina irteera finka partikular batekoa da.

Unai Gotxi Kastrexana: Eta ez dagokio Udalari aldatzea?

Alkatea: urbanizazio bati, Zabalgoitiari iaz eskatu baitziguten, gauza bera erantzun genien, hor eskumena, eskaera egin behar duena urbanizazioa dela, eta Aldundiari baimena eskatu behar dio.

Unai Gotxi Kastrexana: ados, eta aprobetxatzen dut baita ere esateko Zubiaurreko kantoia, uste dut izen hori duela, Geltoki Plazara doana, mugituta dagoela. Baina erdi aroko



azokaren aurretik dago horrela.

- Unai Gotxi Kastrexana: ados, Zaballa kaleko kutxatilako obraren inguruan ere galdetu nahi nuen. Gai horri bultzada bat eman zitzaion, jabledunekin bilkura egin zen, txosten bat eratu zen, bazirudien guztia bizkortuko zela, are...

Alkatea: SR-1 zonaldeko pleguan dago sartuta. SR-1 zonaldean egikaritzeko obraren barnean obra hori sartuta dago.

Unai Gotxi Kastrexana: ez, izan ere, presaka zenbiltzaten egiteko eta bat-batean badirudi gaia gelditu egin dela...

Alkatea: ez, ez, SR-1 zonaldeko pleguan dago sartuta.

Unai Gotxi Kastrexana: udazkenean gaude. Espero dezagun San Migeleko udal txikiak errespeta gaitzala, baina udazkenean gaude. Eta euria hasiko da, eta arazoekin hasiko gara, eta kexuekin hasiko gara berriro...

Alkatea: Alazneri esan diodana, pleguaren zirriborroa dugu.

Unai Gotxi Kastrexana: Eta noizko argitaratzea aurreikusten da?

Alkatea: Aholkularitza juridikoarekin egin beharrean gaude, gurekin bilkura bat eduki nahi izan zuen, plangintza egin eta ateratzeko.

Unai Gotxi Kastrexana: beraz, negurako jadanik.

Alkatea: ezin dizut esan egiaz.

Joseba Vivanco Retes: Egoiliarrekin bilkura aurretik egingo da, ondoren?

Alkatea: bada, nik uste dut aurretik egin beharko genukeela.

Joseba Vivanco Retes: egin behar zena azaltzeko, egin aurretik.

Alkatea: beno, bilkuran azaldu zen zer egingo zen.

Joseba Vivanco Retes: baina zonaldeko egoiliar guztiarekin bilkura bat egitekotan geratu ginen azaltzeko...

Alkatea: bilkura hartan jadanik azaldu zen eta Raulek egindako plano bat zegoen, egikaritzeko egintza guztiak jasotzen zituena. Oker oroitzen ez badut, e?

- Unai Gotxi Kastrexana: beno, gai klasiko batekin nator berriro, nire legealdia ere gainditzen duena, hots, Artekaleko obraren harrera. Gogoan dut obra Aldundiak egin zuela, Arabako Lanak erakundeak, Arabako Lanak desegin zen, obra hori hor geratu zen zintzilik, eta hor dago, Aldundiak egiteke zeuden obraren inguruko txosten bat helarazi zigun, noizko aurreikusten da obraren harrera egitea?

Alkatea: bada, uste dut Aldundiak dagoeneko amaitu duela egin behar zuenarekin.

Unai Gotxi Kastrexana: Ziur? Edukiontzien lehengo egoera berean jarraitzen dute.

Alkatea: bai, baina esan ziguten edukiontzien gaineko ardurarik ez zutela hartuko.

Unai Gotxi Kastrexana: tira, zer gutxiago! Ez dago obraren asegururik, bermerik?

Alkatea: ez, enpresak porrot egin baitu.

Unai Gotxi Kastrexana: bai, baina Aldundia gauzatzaile modura horretaz arduratu beharko da.

Alkatea: egin zigutena deskontatzea izan zen, oker oroitzen ez badut, edukiontzien dagokion zatiaren esleipeneko kopuruak deskontatu ziren. Baina harria aurreikusita bazegoen eta harria gaizki atera eta beste material bat ipini behar bada...

Unai Gotxi Kastrexana: bai, baina obraren harrera ez da egin ordea, obra Aldundiarena da oraindik.

Alkatea: tira, bai.

Unai Gotxi Kastrexana: Artekale osoa Aldundiarena da, ez da Udalarena, eta Aldundiaren jabetzakoa izanda hondatu da. Zer gutxiago Aldundiak konpontzea baino, ezta?

Alkatea: Aldundiak egin zuen balioespen-txostena. Esan zuen zer egingo zuen. Baina tira, beste uneren batean ikusiko dugu espedientea aurrean izanda.

Joseba Vivanco Retes: baina kontua da Udalak, legealdia amaitu aurretik, obraren harrera egingo ote duen.

Alkatea: esan dizut paperak aurrean izanda ikusiko dugula.



Joseba Vivanco Retes: bai, baina ezberdina da e, Iñigo?. Harrera egingo bada. Galdetzen dut. Obraren harrera egin gabe daramagu 4, 5, 6, aurreko legealditik, harrera egin gabe.

- Unai Gotxi Kastrexana: bada, arazoak ematen ari den beste obra batekin nator berriz ere, Udaletxe Zaharrekoarekin. Faktura bat dago ordaintzeke, aurrekontutik kanpo dagoena. Zer gertatzen da faktura horrekin?

Alkatea: bada zenbateko batzuk eskatzen dituztela eta, era berean, badirela obrako zenbait elementu berrikusi beharrekoak.

Unai Gotxi Kastrexana: Baina faktura hori ordaintzeko asmorik ba al dago?

Alkatea: oraintxe bertan ez ditut gogoan zein kontu barneratzen diren. Badira obraren inguruan ustekabeen gertatu diren gauzak, esate baterako, atezain automatikoaren instalazioa, eta badira beste batzuk ez direnak hala gertatu. Oraintxe bertan ez dut gogoan oso ongi nola dagoen, ikusi egin beharko genuke.

Unai Gotxi Kastrexana: geratzen diren erreforma txikiak aipatu dituzu eta egin zen teilatu berriko itoginak dira. Konpondu al dira itoginak?

Alkatea: bada begira, udan izan dira baina arkitekto teknikoarekin hitz egin ondoren, eta aurrez esan genuen, espediente bat egin eta erreklamazio-espeditente bat sustatu beharko dugu.

Unai Gotxi Kastrexana: beraz, ez.

Alkatea: epe barruan gaude, bada, ez dakit. Denbora honetan zehar euri asko egin ez badu, ez dakit itogin hori hormatik behera erortzen den berriro ala ez.

Unai Gotxi Kastrexana: kontua da ekainaren 7ko osoko bilkuran gai hauxe gogorarazi nizula eta esan nizun espero nuela irailean honen inguruan berriro galdetu behar ez izatea. Hemen nago irailaren amaieran, ia urrian, horren inguruan galdezka.

Alkatea: eta ez zalantzarik izan, gaur galdetu izango ez bazenidan ere, buruan dudala.

Unai Gotxi Kastrexana: bada ea egia den, izan ere, berriro oroitarazten dut San Migeleko uda txikiak errespetatuko al digu, ez dezala euri asko egin, eta Udaletxe Zahar guztia ez dadila busti.

Joseba Vivanco Retes: Unaietik itoginen fakturaren inguruan galdetzen zigun gai horri helduz, lehen esaten nuena, legealdia amaitzerako egingo al da harrera? Pentsatzen dut ez dagoela azalpen asko emateko premiarik, legealdia amaitzeko sei hilabete geratzen dira, eta pentsatzen dut atzetik datorrenak, edozein delarik ere, esperoko duela "marroi" guztiak konponduta egongo direla legealdia amaitzean. Horregatik uste dut gai horietan, eta aurreratu egingo dut, osoko bilkuran errepikatu egingo dugu, legealdia amaitzerako bukatuko ote den, beraz, kontuan izan dezazuen. Ea legealdia amaitzen denean gauza hauek guztiak, gauza hauek, hor nonbait geratzen diren gauzak amaituta dauden.

Alkatea: ez izan zalantzarik, hurrengo legealdian marroiak egongo dira oraindik, zaharrak eta berriak.

Joseba Vivanco Retes: bada ezetz espero dugu, izan ere, guk errepikatu egingo diogu egiten ez duenari. Aurreko Alkatearekin halaxe egin genuen, hor nonbait egiteke gauza asko zeudenean eta batzorde bakarrean puntu horiek guztiak planteatu genizkion berehala egin zitezten, eta horietako batzuk egin ziren, korrika eta presaka, eta egin ziren. Beraz espero dugu Gobernu talde honek ere antzeko zerbait egitea.

Alkatea: ahal duguna egiten dugu. Badira zenbait egoera Udal honetan agian 20 urte daramatzatenak ebazteke, baina tira.

Joseba Vivanco Retes: tira, Udaletxe Zaharreko itogina ez dut uste, aurrekontua itxi ondoren sartzan den faktura, eta 6.000, 9.000, 11.000 euroko faktura bat sartzan da, ez dakit zeri buruzkoa, behin aurrekontua itxi denean eta hor aparteko faktura bat agertzen da, hori ez da duela 20 urteko kontua.

Alkatea: ez, baina SR-1 zonaldekoa adibidez bai. Baina tira, ea legealdiaren amaierara iristen garen.

Joseba Vivanco Retes: ez tira, iritsiko zarela espero dut.

- Joseba Vivanco Retes: nire galdera Percoturreko gaiarekin lotutakoa zen, Artziniegako



biziberritze komertzial eta turistikorako plan berezia. Plan horretan xahutu dugu, diru-laguntza eskatu arren, ez dakit 14.000 euro ote diren, oraintxe bertan ez dut gogoan zenbat kostatu zen. Udaberrian aurkeztu zen, ez dakit zein hiletan zehazki, aurkezpen bat egin zen eta abar. Galdera dator, izan ere, astelehenean bilkura bat izan genuen merkatariekin eta Alkatea azaldu zien komertzioetan datozen hiletan egiteko zozketa baterako proposamena, baleena, eta abar, eta pentsatzen dut, Joseba ere han izan zen, eta pentsatzen dut nirekin bat etorriko zaretela, horretarako zen bilkura horretan azkenean 17.000 gai hitz egin zirela, non bertaratu ziren merkatariek beren kexa anitzak agertu zituzten, edo beren arazoak, edo haien ustez arazo direnak, edo Udalak jarduteko modu kaskarraren gaineko beren ikuspegiak, eta abar. Hasi piboteekin eta merkatu txikira arte... Hau da, hori zen txosten horretan, dokumentu horretan, proposatzen den merkataritza- eta turismo mahaiaren egin behar zena, 14.000 euroko kostua izan duen ikerketa horretan. Izan ere, bilkura horretan, hartatik, ez da ezer aterako. Hura kilker festa izan zen, eta gai horiek hor geratuko dira betiereko, eta hor geratuko dira. Besterik gabe asteroko merkatu txikiaren gaia edo piboteena berriro atera dadila, esate baterako, 2016an AM-k egindako eskaerak daudenean, gai horren inguruan mintzatzeko eskatuz, eta berri hor geratzen da. Alkatea magia-trikimailu baten antzera ateratzen du artisau produktuen azoka, hilean igande batez egiteko asmoa duguna. Tira, proposamen horrek urtebete darama, bi, proposamena dago. Dokumentu bat ere egin zen, Kuadrilla mailan txosten bat egin zen gai horrekin guztiarekin produktuen azoka tradizionalak bultzatzeko eta abar eta abar, eta ondorioetako bat zen Aiaraldeako udalerrri bakoitzak igande batez azoka bat egitea, tokiko ekoizleen artisau produktuekin. Hor dago, botatzea horrela agian egingo dela esanez ez, ziurrenera dagoeneko martxan egon behar zukeen zerbait da. Noan gaira, ez dizut galdetuko Gobernu taldeak merkataritza- eta turismo-mahai hori martxan jartzeko asmorik duen, hala dela ulertu nahi dut eta, ikerketa horren kostua 14.000 eurokoa izan eta gero. Galdetu nahi dudana zera da, eta lehengoari helduko diot berriro, legealdia amaitu aurretik Gobernu taldeak merkataritza- eta turismo-mahai hori martxan jarriko ote duen. Bai ala ez, erraza da.

Alkatea: uste dut lehengo egunean merkatariekin izandako bilkurara proposamen zehatz batekin joan ginela, normalean mahaiak planteatu baitira "beno, ea zer gertatzen den" pentsaerarekin, eta beti kexan geratu izan gara. Behingoagatik lanerako ekimen jakin bat dago, Udalak proposatu duena eta, beno, badirudi positiboki balioetsi dela.

Joseba Vivanco Retes: ez naiz sartzen horretan e? Ez naiz sartzen proposamen horretan.

Alkatea: badakit arazo asko ditugula eta horietan merkatarien artean ere ikuspegi ezberdinak daude, AEME Elkartearen kudeaketaren inguruan ere ikuspegi ezberdinak daude merkatarien aldetik, eta uste dut hori dela berreskuratu behar dugun puntua. Saia gaitzen ekimen hau... ikus dezagun nola ateratzen den. Nik ondo ateratzea espero dut eta espero dut hortik aurrera kontura gaitzela elkarrekin lan eginez gauzak egin ditzakegula eta gauzak aurrera atera ditzakegula eta hobetu egin dezakegula. Baina proposamena izan da ez joatea mahai batera esku hutsik, baizik eta lan-proposamen zehatz batekin, proiektu zehatz batekin, eta ikus dezagun zer gertatzen den.

Joseba Vivanco Retes: nik berriro diot, ez dut proposamenaren inguruan galdetu, bai ala ez galdetu dut, gobernuko taldeak legealdia amaitu aurretik lan-mahai hori sortzeko asmorik ba ote duen.

Alkatea: ez da mahaia, izan ere, mahaia deitzeko lehendabizi ia arazoak ditugu hura nork osatu behar duen erabakitzerakoan, AEME elkarteak soilik, AEME elkarteaz kanpoko komertzioei dei egin behar ote zaien, oreka non dagoen, hori korapilatsua da. Ikus dezagun proposamena nola ateratzen den.

Joseba Vivanco Retes: ez didazu baietzik edo ezetzik esan, beraz, ezetz apuntatuko dut.

Alkatea: esan dizut lehengo egunean...

Joseba Vivanco Retes: eta lehen esan dudana moduan jan dezala atzetik datorrenak, edozein dela ere.

Alkatea: esan dizut lehengo egunean lan-proposamen bat egin genuela.

Joseba Vivanco Retes: bai, eta nik esaten dizut ezetz apuntatzen dudala, baietz esaten ez didazunez, orduan ez duzuela sortuko ulertzen dut.

Alkatea: eta beno Gobernu taldetik atera den proposamen bat da eta noski zuek egin



ditzakezen proposamenetara irekita gaude, ongietorriak izango dira eta.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik uste dut kontsumoa biziberritzeko proposamena ongi planteatuta dagoela Gobernuko taldearen aldetik. Nik uste dut mahaia koordinatu egin behar dela eta lanean hasi behar dela. Proiektuak esertzen zarenean irteten dira, joan den egunean bilkura bat izan genuenean konturatu ginen, 17 galdera daudela edo 20, Udalak planteatzen zuen proposamenetik harago. Orduan esatea zaila dela AEME beste merkataria batzuekin kokatzea, bada jakina zaila da. Nork egon behar du ordezkatura? Nik uste dut udalerrri honetako merkataria guztiek egon behar dutela ordezkatura, AEME elkartera atxikita egon zein ez. Halaxe da. Egiaz kezkarria dena zera da, Artziniegan dauden 39 merkatarietatik, joan den egunean hamahiru geundela uste dudanez...

Joseba Vivanco Retes: hamaika.

Joseba Elejalde Ribacoba: Hamaika. Hori da benetan kezkarria dena. Udalerrri honetan kontsumoa akuilatzeke Udalaren ekimen batek soilik hamaika merkataria erakartzea, eta horien artean ez dela sartuko dioenik egotea zuzenean.

Alkatea: Joseba, gauza bat, ekimenera atxikita bilkuran izan zirenak baino gehiago gaude. Hamazazpi gaude.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik kezkarria dela esaten dizut. Nik bi paper eraman nituen bi pertsoneri emateko, eta nahi zuten ala ez galdetzeko. Jakina, nik uler dezaket arratsaldeko 8etan merkatariren bati gaizki etortzea, baina kezkarria da, lehenik eta behin soilik hamahiru etortzea, edo hamaika, bigarrenik bilkura horretan gauza asko eta asko eztabaidatu zirela, aurreko urtetatik datozen arazo asko, endemikoak direnak, kalez kaleko salmenta, kalez kaleko salmenta jorratu zen, eta AEME elkarteak ere sarritan eskatu du hori kontrola dadila, Alfonsitok ere errepikatu zuen hemen. Hots, Udal honetan dagoeneko argi ditugun kontuak dira, eta horien gainean ez dugu zipitzik ere egin. Ez da ezertxo ere egin. Ni egiaz kezkatzen nauena horixe da, urte hau igarotzea, 14.000 euroak tiradera batean geratzea, eta 6 edo 8 hilabete barru datorrenak, tiraderatik ateratzea erabaki dezala edo betiereko tiraderan sartuta jarrai dezala. Hau da, ados nago Udalaren proposamena ona dela kontsumoa akuilatzeke, baina merkatariei Udalarekin esertzeko aukerarik ematen ez badiegu, eta Udala izan dadila apur bat merkatarien artean bitartekari lanak egiten dituen, izan ere, ikusi genuen, Josebak ongi esan duen moduan, hura kilker festa bat zela, bakoitzak bere negozioa edo udalerrria bere osotasunean ikusteko modu oso berezkoa zuen, bakoitzak pentsatzeko modu oso pertsonala zuen. Herrigunea biziberritzeko, kontsumoa biziberritzeko, turismoa biziberritzeko lan etengabe bat abiatzeko formula horrekin saiakera egiten ez badugu, hemen, alferrik arituko gara, eta urte erdiro edo urtero 1.500 euro edo 2.000 euro atereaz jarraituko dugu, X bizilagunen artean banatzeko herrian erosi edo kontsumitzen baldin badute. Uste dut hori ere ez dela egokia. Biziberritzeko modu bat da baina pausoa luzatu behar da, kanpaina sinple horietatik harago...

Alkatea: beno, ikus dezagun nola funtzionatzen dute, haiek esango dute. Agian gaizki aterako da, baina tira.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, ez, nik ez dut esaten gaizki aterako denik. Esaten dudana da garrantzitsuena adostu eta akordioetara iristea dela, eta akordioetara akordioak erdietsi behar dituzten pertsonekin mahaian eseriz iristen da. Nik mahai bat baldin badaukat eta merkataria ez baldin baditut ezingo naiz akordioetara iritsi, eta ez dut jakingo Udal modura zein proiektu bideratu behar ditudan. Baina, ni esertzen banaiz, zein proiektu bideratu jakingo dut, zer den eskatzen didatena, eta non sakondu behar dudan gehiago eta non gutxiago. Izan ere, agian tronpatzen ari naiz. Eta sarritan agian Percotourren ikerketa ezaguna, agian ez da loria, agian zenbait gauza aldatu egin behar dira. Eta hori merkatariek esango dizute. Haiek dute udalerrri honen egiazko ikuspegia, egunero bizitzen baitute.

- Joseba Vivanco Retes: hilaren 25ean Axpeko auzotar batek aparkatzearekin zerikusia zuen idatzi bat erregistratu zuen, aparkatze masiboa esan daiteke, izan ere, jendeak urbanizazio horretan, urbanizazio horren barnean, kaleak publikoak dira eta, udalerrrikoak dira, bada autoak leku guztietan gaude aparkatuta, bihurtuneetan, barnetik... Esaten duenez zuetakoren batekin aipatu du pertsonalki, baina ez dela deus egin egoera aldatzeko, orduan idatzi bat sartzea erabaki du. Nik dakidanez ez da Axpeko auzotar batek Udalari helarazi dion



kexa bakarra, eta dakidanez kexa gehiago daude eta bada ezinegon handi samarra dago, eta dagoeneko auzotarren artean eztabaidak izaten dira jendeak beste jende baten garajeen aurrean aparkatzen duelako, mundu guztiak aparkatzen du, beren garajeetan izan ezik, Artziniegan ohikoa izango da itxuraz, bide publikoan aparkatzea. Orduan nire galdera da ea Udalak neurriren bat hartu behar ote duen, eta Laudioko Ertzaintzako komisariako arduradunarekin harremanetan jarriko ote den patruila hona etortzen denean Axpen barna osteratxo bat eman dezan, batez ere arratsalde-iluntzean, edo edonoiz, eta isunak jarri behar baditu jar ditzala isunak. Hori bai, dagoeneko aipatu dudan gai bat da, eta isunak ipini aurretik on litzateke auzo guztietako postontzietan idatziak sartzea eta esan "jaun-andreok, Ertzaintza isun txikiak ipintzen hasiko da gaizki aparkatzean, izan ere, bestela gatazka bat izango dugu eta auskalo nola bukatuko den, eta gainera bide publikoa da, ez da bide pribatu bat.

Alkatea: noizbait Ertzaintzari ohartarazi diogu. Baina, era berean, egon dira Axpeko urbanizazioko auzotarren deiak kontrakoa adieraziz, ibilgailuek ez dutela traba egiten esanez eta ea seinaleak ken daitezkeen.

Inmaculada Vivanco Retes: badira aparkatzeko zonaldeak adierazten dituzten eta aparkatu ezin diren eremuak adierazteko seinaleak.

Joseba Vivanco Retes: nik berriro diot. Seinaleak egon arren, arazoa hor dago, eta ziurrenera ordu hauetan horra jaisten baldin bagara, guztiok osteratxo bat ematen badugu, aparkatutako autoz beteta dago, hor zehar ibiltzen diren haurren arazoarekin, dauden liskarrekin, izan ere, hala kontatu didate, liskarrak jendeak albokoaren atearen aurrean aparkatzen duelako, eta esaten dio "ez, lasai, zuk txirrina jo eta nik autoa kenduko dut". Orduan beno, arazoa hor dago, kontua da bide publikoa dela, eta nik uste dut Udaletik ere zerbait egin zitekeela. Izan ere, azken batean Udaletik, trafikoarekin lotutako gaiak ateratzen direnean ezkutua atera eta esaten dugu "eskumena Ertzaintzarena da, delegatu egin dugu". Tira bai, eta pentsatzen dut Udaletik ere esan ahal zaiola Ertzaintzaren arduradunari bertako jendeak bere lana egin dezala.

Alkatea: hitz egin genuen batzorde batean.

Joseba Vivanco Retes: hitz egin genuen, baina neurriak. Neurriak har daitezke eta.

Alkatea: izan ere, nik diotsut idatziaren aurkako iritziak ere badirela, auzotarren artean.

Joseba Vivanco Retes: bide publikoan aparkatzen baldin baduzu, izan ere, nik soilik pentsatzen dut bat-batean 10 autok aparkatzen dutela egunero edo gauero Artekalen, edo hemengo kalean, espaloian. Pentsatzen dut Udalak zerbait egingo zukeela hurrengo egunean. Hango kaleak teorikoki beste edozein kale bezalaxe dira. Gauza bera auzoetako auzotarrek esaten digutenean "aizu, bide hau eta kale hau zuen herriguneko kalearen berdina da". Eta arrazoi osoa dute. Hor konpontzen baduzu, nirea ere konpondu. Bada jaramon egin diezaiegun apur bat baita ere helarazi ohi dizkiguten kritika horiei, auzoetatik eta herrigunetz aparte zonaldeetatik iristen direnei, izan ere, horiek orekatzen hasi behar gara eta kasu egiten. Nik uste dut neurriak har daitezkeela eta hartu egin behar direla.

Inmaculada Vivanco Retes: nire ustez hartu beharreko lehen neurria kasu honetan herri osoan giza legez, errespetuz eta begirunez jokatzeko dela, alde guztien aldetik eta auzotarren aldetik.

Joseba Vivanco Retes: orduan hau Arkadia izango litzateke.

Inmaculada Vivanco Retes: hori da hartu beharko litzatekeen lehen neurria eta auzotar guztiek ikas dezatela.

- Joseba Vivanco Retes: bai, lehen Tubacexen gaia aipatu duzu azaletik. Bai galdetu nahi nuen ea, Gobernu taldearen eskutik, ekimenen bat ote duen buruan edo Udaletik gaiarekin lotuta egin behar den beste zerbait, eta ez naiz soilik lan-hitzarmenaz ari, enpleguaren gaiaz... planta industrial horrekin egon daitezkeen etorkizunari buruz ere ari naiz. Hots, egoera jakin batean gaude, non CEL enpresak itxi egin zuen, ez dugu inolako bermerik, izan ere, langileei entzuten badiegu hemen Tubacex enpresarentzat ere itxura iluna du kontuak, deslokaliza dezatela, itxi dezatela edo dozena erdi langilera murriztu dezatela funtzionamendua egin dezaten. Horrek guztiorrek duen ondorio zuzenarekin, ez soilik langileengan, haiengan ere bai nagusiki, baizik eta Artziniega osoan. Orduan galdetzen dut ekimenik ba ote den, izan ere, argi



esanda, Udala gobernatzen duen taldea Aldundia gobernatzen duen taldea da, gobernatzen duen alderdia ere bada, ez Eusko Jaurilaritzaren enplegu gaietan, baizik eta Eusko Jaurilaritzaren Industria arloan, horiek dira erabakiak hartzen dituztenak, ez Eusko Jaurilaritzaren enplegua, hori PSOE alderdiaren eskuetan baitago eta apurrak eman dizkiete, Eusko Jaurilaritzaren Industria da, eta EAJ alderdiaren eskuetan dago. Orduan nire ustez, hemen gobernuak, eta erakunde horietan gobernatzen duen alderdi modura, uste dut presioa ere egin beharko litzatekeela kontuan izan gaitzaten eta urte gutxiren buruan ez dezagun amaitu dauzkagun bi enpresetako bakarra izan gabe. Duela gutxi liskarra izan dugu Araban, ez dut gogoan orain enpresaren izena, Accenor ote zen edo ez dakit zein zen, berrehun langiletik gora, eta eraman egin behar zuten. Hor Aldundiak bitartekari lanekin egin zituen, lehen aipatu duzunak egin zituen bitartekariarenak, enpresa batzordekoak harekin elkartu ziren, eta planta hori hor geratu da. Argi esanda, EAK alderdiak badu garrantzia egiteko eta egiteko. Orduan, nik uste dut, onartzen ditugun mozioetatik eta hitz onetatik harago, ekin eta eskatu ere egin beharko dela, izan ere bai, Artziniega gara, planta hau txikitxo da, ez gara ontziola eta ez gara ez dakit nor, baina gudan eragina duena hauxe da. Orduan, horregatik galdetzen dut Udal Gobernuaren aldetik ekimenik ote dagoen gai honi haginka hasteko eta behar den tokietan ate joka hasteko.

Alkatea: beno, goaz gaika. Has gaitezen Lucartetik. Gauza ez zen likidazioarekin amaitu. Ni etengabeko harremanean nago hala enpresa batzordearekin, Pedro dagoeneko erretiroa hartuta dago, Sodupeko mutiko bat da, eta baita gerente berriarekin ere, izan ere, hilabete honetan aldaketa bat izan da, dagoeneko Alberto Larrea ez dago, orain Luciano Gonzalez dago, eta hark ere uda aurretik, ekainean jadanik, esaten ari zena komentatu dit. Kontua zera da, bada tira planteamendu bat dago epe ertainera converting hona, Artziniegara, itzuli ahal izateko. Berehala etorriko dena itxura batean, Lucartek lehen Valentzian zuen biltegi-ratze-linea bat da, dagoeneko desegin egingo du, eta hona ekarriko du, Artziniegara. Orduan beno, hori, gerente berriarekin era berean, 20 egun daramatza, datorren astean agian Artziniegara etorri beharko da, pare bat aldiz baino ez da hemen egon, eta beno ikusiko dugu ea elkartu gaitzekin, apur bat Lucarten jarraipena egiteko. Ondoren TTA enpresari dagokionez, dagoeneko esan dut Pilar Garcia Salazar, Ekonomia Sustapenerako Diputatua, enpresa batzordearekin elkartu zela irailaren 3an. Normalean Aldundiak egin ohi ez duena. Haatik, Diputatua haiekin elkartu zen, izan ere, guk hemen, Udaletik, egoeraren gaineko kezka helarazi genuen. Gobernuarekin jakina, ni etengabe nago elkarrizketan TTA enpresaren egoeraren inguruan. Eta, zein ekintza egingo ditugun? Bada batzordearekin batera egingo ditugu, eta batzordearen eskutik, batzordeak eskatzen digun hori egingo dugu. Baina beti enpresa batzordearen eskutik. Ez dugu ekimen partikularrik abiatuko, edo berezko ekimenik enpresa batzordeak horrekin aurrera egiteko esan arte.

Joseba Vivanco Retes: Tira, nik kasu honetan pentsatzen dut, berriro diot bi bide daudela, nahiz eta elkarren osagarri izan jakina; alde batetik, lan-hitzarmenaren gaia dago, lan arazoa, langileen arazoa, eta beste alde batetik itxierarekin edo deslokalizazioarekin etor daitekeen arazoa, edo enpresak izan dezakeen egoerarekin. Orduan nire ustez badela Udalaren eskumena hor enpresa hori mantentzeko ahalegina egitea, bide batez, enpresako lanpostu horiek eta jarduera mantenduz. Orduan nik berriro diot, eta argi esaten dut, gustatuko litzaidake etorriko bazinete eta esan "aizu begira lorpena guretzat, izan ere, lortu dugu ez dadin gertatu ez dakit zer, hemen sailetako jende oro inplikatu delako, industriakoa, Maroto eta bestea". Bikaina, mantentzeko bada. Baina esandakoa, neurri handi batean zuen eskuetan ere badago, izan ere, beste Erakunde batzuetan gobernatzen duzuen alderdiak zarete. Eta zeresan asko dute. Izan ere, esku hartu nahi dutenean, esku-hartzen dute. Berriro diot, ez gara ontziola, ez hau eta ez hura, baina Artziniegakoak gara eta hauxe da gu kezkatzen gaituena.

Alkatea: ez izan zalantzarik, ekinean ari garela.

Joseba Vivanco Retes: bada, espero dezagun helmugara iristea.

Alkatea: eta espero dezagun helmugara iristea. Eta niri gutxien axola zaidana lorpenak zenbatzea da. Nik konpontzea baino ez dut nahi.



- Joseba Vivanco Retes: beste gauza batzuk nituen, bat pilotalekuko Caja Vital kutxaren partzelaren inguruan, erosketarako negoziazioan aurrera egin ote den edo egonkor jarraitzen ote duen.

Alkatea: ez, izan ere, prezioa itxita geneukan, baina gertatzen dena da altxamendu topografiko bat dugula bi planteamendu egin dizkiguna, hemen uste denaren arabera dagokion partzela-lerroarekin bat ez datozenak. Eta beste bat bitarteko zonaldeak errespetatzen dituen eta badirudi eskusiboki errespetatu beharrekoa etxearen teilatu-hegala dela, eskriturari so.

Joseba Vivanco Retes: hau da, oraindik burutzeko dagoela...

Alkatea: bai, baina tira, prezioa dagoeneko itxita zegoen.

- Joseba Vivanco Retes: beste gai bat, jorratzeke geneukan, eta lehen esandakoa errepikatzen dut, legealdiaren amaierarako egingo ote den, Santa Kolomako mugaketa egin zen, bere lanak eman zituen, oker ez banago orain mugarrien kontua falta da. Berriro galdetzen dut, Gobernu taldeak hori burutzeko edo gai horrekin behin betikoz amaitzeko asmoa du legealdia amaitu aurretik?

Alkatea: bada, ez dakit iritsiko garen. Baina hurrengo legealdirako zerbait utzi beharko da, bestela oso aspergarria izango da eta.

Joseba Vivanco Retes: ez, ez, atzetik datorrenak...

Alkatea: bestela oso aspergarria izango da, zerbait utzi behar da.

Joseba Vivanco Retes: ene jainkoa. Beraz... eta zergatik ez gara iristen, zergatik izango da ezinezkoa iristea? Ez dakit epe kontua den, arazorik dagoen, edo...

Alkatea: ez, Katastroan inskripzioa egiteko dago, ezta? Katastroan badago jadanik.

Joseba Vivanco Retes: noski, azkenik hura izugarri kostatu zaigu, halako gauza bat egiteak dituen arazo guztiekin, jendearekin txarrean ibiltzea, erreklamazioak, ez dakit zer...

Ascension Hormazabal Meabe: bai, katastroan iraulketa gaizki egin zen ordea, baina hitz egin nuen katastroarekin.

Alkatea: hori da, iraulketa gaizki egin zuen.

Joseba Vivanco Retes: eta orain paperetik lurrera pasatzeko txanda heldu denean, bada pentsatzen dut logikoena egitea dela, eta pentsatzen dut orain ere egongo dira auzotarrak esanez "aizu, orain hau ipini behar duzu hemen", baina beno, ikusten dut ez dagoela deus.

- Joseba Vivanco Retes: eta azken kontu bat jadanik. Udal diru-laguntzen kontua. Nik uste dut dinamika errepikatu egiten dela ia, sekulako lanak ematen dizkigu diru-laguntzen lege bat onartzeak, sekulako lanak ematen dizkigu diru-laguntzak emateko irizpideen artikulua onartzea, Artziniegan ez genuenean halakorik, diru-laguntzen lege bat haiek behingoz legearen arabera esleitzeko, Idazkariak beti errepikatzen zigun lege bat egin behar genuela, legea egin dugu, maiatzaren 7an eskaerak aurkezteko epea amaitu zen, elkarte edo kolektiboek diru-laguntzetarako dagozkion eskaerak aurkeztu zituzten, eta honen arabera...

Alkatea: ez, baina azken epea areagotu egin behar izan zen.

Joseba Vivanco Retes: maiatzak 7, ALHAO aldizkarian adierazten denez.

Alkatea: areagotu egin behar izan zen behin-behineko onarpenarekin lotutako kontu bat zela medio. Behin-behineko onarpenik gabe diru-laguntzen oinarriak argitaratu beharrean, oinarriak argitaratu eta epe bat finkatzen zen, finkatu zen, oinarriak behin-behinekoz onartu ziren, beraz alegazioetarako epe bat zegoen. Orduan epea zenbatzen hasi zen, ez aldizkarian argitaratu ziren unetik, baizik eta alegazioetarako epea amaitu zen unetik aurrera. Eta ez zen alegaziorik egon.

Arkaitz San Jose Martínez: ea, ni oker ez banago, hasierako onarpena, argitalpena apirilaren 4ko aldizkarian, beraz, alegazioetarako hilabete, maiatzaren 4an onartutzat joko lirateke behin betikoz, ez baitzen egon...

Alkatea: eta ondoren hilabete bateko epe batera goaz.

Arkaitz San Jose Martínez: behin betiko onarpenetik aurrera beste hilabete gehiago dago proposamenak aurkezteko, ekainak 4, ekainaren 4tik aurrera ebazpena emateko bi hilabete.

Alkatea: bai, baina gero...

Joseba Vivanco Retes: urrian gaude ordea.



Alkatea: bai, bai.

Joseba Vivanco Retes: tira ez, ez dut uste gaurtik ostiralera ebatziko denik. Elkarte guztiok, esate baterako, ekitaldi bat dugu datorren astean, Artziniegan, diru-laguntza eskatu duena. Eskaera gaizki egin izana baino ez da falta, eta jartzen dituen gauzak bat ez etortzea, eta diru-laguntza horren ebazpenean dirurik ez dagoela esan behar izatea, edo gutxiago duela. Urrian gaude eta oraindik ez ditugu diru-laguntzak ebatzi. Esan nahi dut...

Joseba Vivanco Retes: gerta liteke ordea.

Alkatea: proposamenen balioespen teknikoa egiten gaude. Ez dakit, ez naiz gai gehiagotan sartuko. Ez dut uste osoko bilkuran jorratzeko kontu bat denik. Nahi baduzu gero esango dizut, baina ez dut uste osoko bilkurako kontu bat denik.

- Arkaitz San Jose Martinez: nik soilik galdetu nahi nuen ea etorri den jendeari galde-eske txanda bat emango zaion.

Alkatea: Gaur?

Arkaitz San Jose Martinez: bai.

Alkate: gaur esan dugu osoko bilkura arrunta izango balitz bezala jorratuko dela.

Arkaitz San Jose Martinez: orduan bai.

- Joseba Elejalde Ribacoba: nik hasteko joan den hilean eztabaida bat izan genuen Hondakin Uren Araztegiaren harira, esan zenidan eztabaida bat izango zenuela Ernesto Martinez de Cabredorekin, bilkura izan duzun galdetzeko da, eta zinegotzi guztioi azaltzeko...

Alkatea: uste dut hilaren 23ko osoko bilkuran esan genuela. Hura izan genuen jadanik, eta URA agentziaren aukera kolektorea da azken batean. 2021-2026 plangintzaren barnean sartzen dela, eta proiektua lehenbailehen onartu eta desjabetzekin hasi ahal izateko izapideak hastea adostu genuen. Baina hori bai hurrengo legealdian gauzatu beharko dutela, e? Hori bai. Maiatzerako saneamendu-sistema ez da amaituta egongo.

Joseba Vivanco Retes: hori hemendik bi legealdikoei egokituko zaie.

Joseba Elejalde Ribacoba: besterik gabe ez Artziniegako Udalarri argi geratzea azkenean URA agentziak erabaki duela Artziniegako hondakin urak eramateko neurririk onena kolektore bidez Gueñeseko Hondakin Uren Araztegiara arte eramatea dela.

Alkatea: bai, sarritan esan dut Arabako ur eta saneamendurako plan gidariari egindako alegazioetan bertan, URA agentziak ere esan zuen.

- Joseba Elejalde Ribacoba: era berean, P2-362 partzelaren inguruan galdetu nizun, Antonio Garciarena...

Alkatea: egiteke dago.

Joseba Elejalde Ribacoba: zure hitzak dira "ezin dizut ezer esan Joseba, egia baita hori egiteke dagoela".

Alkatea: egiteke dago.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, badakit egiteke dagoela handik igaro naiz eta, baina duela hiru urtetik dago egiteke. Ezin duguna da txosten batekin egon, Unaiek oso ongi esaten zuen moduan nik txostena izatearen zortea dut, zerbitzu teknikoen txosten bat esanez ura bideratu egin behar dela auzotar horren partzelara joan ez dadin, hiru urte daramatzagu kostuarekin, 1.500 euroko proiektu batekin, arkitektoaren txosten batekin edo aparejadorearena kasu honetan, eta obra burutzeke, eta urak partikular baten finka batera isurtzen dira oraindik, urak jariatzen diren errepedea udalerrikoa denean. Izan ere... ondoren diozu, haserretu egiten zara, bada bai, haserretu egiten naiz. Haserretu egiten naiz ez delako zentzuzkoa 1.500 euroko obra bat hiru urtez egotea gauzatu gabe. Udaletxeko langileak leporaino daudela esaten badidazu ere. Alkatetzako Dekretu baten bidez enpresa bati esan beharko diozu obra egikaritu dezala eta ekidin dezala ura Toño Garciaren partzelara isuri edo eror dadin. Eta hori hilabete batean, hilabete batean, astebetean, eginda dago. Astebetean Artziniegako UETE estaziotik Gordelizeko depositura 3.000 metro hoditeria eramatea lortu baldin badugu, hau errepedean zulo bat egin, hodi bat sartu eta estaltzea baino ez delarik, bi egunetako lana da. Ez duzu gehiago behar. Ez baitakit jadanik zer gehiago galdetu. Hau behin eta berriro erreplikatzeko da



eta egia esatera aspertu naiz galdetzeaz, baina tira, aurreko egunean esan nizun, azkenean gainerako zinegotziak ez gaituzula aintzatesten, izan ere, egiten dugun lana, zeina hemen azaltzen baitugu, eta sarritan burutzea onartzen delarik, bada zuk tiradera batean sartu eta erantzuten diguzu “ezin dizut ezer esan hiru urte beranduago, izan ere, egia da hori egiteke dagoela”. Hilabete beranduago galdera berarekin jarraitzen dugu, beno, bi hilabete beranduago barkatu, galdera berarekin jarraitzen dugu, eta pentsatzen dut erantzun berdina emango didazula, egiteke dagoela eta egingo dela.

Alkatea: ez, ez, ez, ez zalantzarik izan hori egiteke dagoela, hori egin egingo dugu...

Joseba Elejalde Ribacoba: euria egiten hasi aurretik, espero dut.

Alkatea: ez ezazu hartu zure lanarekiko errespetu falta modura.

Joseba Elejalde Ribacoba: Nik baietz uste dut, baina tira.

Alkatea: zinegotzien aldetik eskaera asko ditugu, pertsonen aldetik, auzotarren aldetik, udalerraren aldetik ere bai, batzuei heltzen diegu beste batzuetara berandu iristen gara, baina agendan dauzkagu, ez zalantzarik izan.

- Joseba Elejalde Ribacoba: Erreta Tuterako errepideari buruz. Beno, nik gai honen inguruan ez dakit zer gehiago esan. Urte honetako maiatzaren 30ean edo 31n lur-jausi bat gertatu zen Artziniega eta Erreta Tuterara lotzen dituen errepidean. Alderdi Popularrak idatzi bat sartu zuen ekainaren 5ean, eta Aldundiak lur-jausia konpontzeko ekimen eskasa edo ezdeusa ikusita hilaren 29an mozio bat sartu nuen, osoko bilkura honetan onartu zena, EAJ alderdiaren abstentzioarekin. Esaten zitzaigun eguraldi txarra egin zuela eta abar, hainbat inguruabar aipatu zitzaizkigun eta beno..., ez naiz horiek banakatzen hasiko berriro, izan ere, osoko bilkura guztietan gehiegi errepikatzen dut. Esan zitzaigunez abuztuan, edo beranduenera, irailaren hasieran, obra egikarrituta egongo zen. Obra egikaritu gabe dago oraindik, lur-jausiak hor jarraitzen du, konoak hor daude, badakit zerbait gertatu dela, baina Iñigo jakin nahi dut ea zuk badakizun zer dagoen atzerapen honen guztiaren atzetik. Izan ere, obra hori ez da egikaritu oraindik.

Alkatea: bada ez dakit, galdetu egingo dut.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik esango dizut arrazoia. Izan ere URA, berriro ere URA, Administrazio guztiak harrapatuta dituen sailak, eta ez dut esango nondik dituen harrapatuta. URA, Jose Lopezekin hitz egin nuen, honekin zer gertatzen zen esateko eta zera esan zidan: “Joseba, URA agentziak ez digu harri-lubeta planteatuta dugun lekuan ipintzen”. Hau da, ezin daiteke izan hiru hilabete beranduago Erreta Tuterara iristeko errepide bakarrak, halako lur-jausi batekin jarraitzea. Eusko Jaurlaritzako sail bati ez zaiolako ongi iruditzen lehen karga-horma zegoen lekuan, errepidea sostengatzen zen lekuan, hor berriro harri-lubeta ipintzea. Hau irrigarria da, hau lotsagarria da. Lotsagarria da sail batek halako eskumena izatea eta halako indarra Herri Administrazio guztien barnean. Lotsagarria da hemen laster agian horma bat botaraziko digutela, lotsagarria da, bi metrora erreka bat dagoelako, lotsagarria da normalean 20 auzotar baino gehiagok erabiltzen duten errepide bat, lur-jausi bat gertatu eta hiru hilabete beranduago esatea bat-batean orain URA dela obrak geldiarazi dituen ez dagoelako ados obrak egikaritzeko moduarekin. Lotsagarria da, eta lotsagarria Arabako Foru Aldundiak behingoz ez dezala, ez dezala kontua erabakitasunez hartu eta Eusko Jaurlaritzari aurre egin eta errepide hori denbora eta modu egokian egin ez dadila eta, Foru Planeko errepide modura, Foru Planeko teknikariak beharrezkotzat eta egokitzat jotako neurriekin egin ez dadila. Foru Planeko teknikaria, errepideetako, izan beharko da, obrak nola egikaritu behar diren esango duena errepide hori ez dadin berriro egin. Jakina, URA sailarekin adostu beharko du, eta adostasun batzuk erdietsi beharko dituzte, baina ezin daiteke onartu URA sailak, eta sudurraren puntan ipintzen zaiolako, obra bat geldiaraztea. Berehala egitekoa baita, eta izaera orokorrekoa da, eta bihar zerbait gertatzen baldin bada ea nori ipiniko dizkiogun erantzukizunak. Eta hala da, eta hiru hilabete daramatzat salatzen. Eta hemen, Udal honetan, Alderdi Popularrak aurkeztutako mozio bat onartu dugu, eta berdin da, berdin jarraitzen dugu.

Alkatea: Joseba, zer nahi duzu URA sailaren inguruan kontatzea?

Joseba Elejalde Ribacoba: kontatu ahal zenidan hiru hilabete beranduago, Diputatuarekin nik izan dudana elkarrizketa bera zuk ere izan duzula. Ez dizula deus esan, nik ea zerbait



bazenekien esan dizut. Diputatuarekin bilkura bat izan zenuela erantzungo zenidalakoan. Behintzat ikusten dut Udalaren aldetiko interes orokorra guztion interes orokorra dela, baina dagoeneko ezetz esaten ari zataizkit. Eta Josu hemen izan zen erdi aroko azokaren egunean. Bada horrekin guztia esan dizut. Ez baldin bagara gai elkartzeko udalari honetan gertatzen diren kontu larrien inguruan haiekin arduratzen diren pertsonekin, eta denbora eta modu egokian adierazten ez badiguzu zer gertatzen ari den, arazo bat dugu, eta zeraren ondorio den arazo bat, izan ere, nik galdetzen dut...

Alkatea: esan dizut galdetuko nuela. Alkatea: esan dizut galdetuko dudala.

Joseba Elejalde Ribacoba: noski, baina gerta daiteke datorren hilean, errepide honek konpondu gabe jarraitzea, ez nik galdetzea gaur, zuk hil honetan, urrian, ez galdetzea Josuri, izan ere, Josuk esan dizunez egiten duten unean etorriko direla, eta etorriko da azaroa euripean, eta errepidea egikaritu gabe, eta errepidea konpondu gabe, eta auzotarrak bizi-arriskuan, ez baitakigu zer gerta litekeen bi hilabete barru, zuloak handitzen jarraituko duen, eta errepidea osorik eroriko ote den azkenean, orain dauden 40 zentimetroak izan beharrean, bi metroak.

Alkatea: esan dizut galdetuko dudala. Baina begira, galdetu duzunez eskertzen dizut. Esan ahal zenidan.

Joseba Elejalde Ribacoba: gaur galdetu diot ordea. Hori da kontua. Hona nentorren eta Erretako errepidearen gaia atera nahi nuen, atzerapena zeren ondorio den ba al zenekiten jakin nahi nuen. Bihar Batzar Nagusietan atzerapena zergatik gertatzen den galdetuko dut.

Alkatea: eta URA sailaren gaiaz ez dugu hit egingo. Izan ere, soberan dakizue hemen Udalean bertan URA sailarekin espediente barregarri batzuk ditugula.

- Joseba Elejalde Ribacoba: hemen bada familia bat 2017ko abenduaren 15ean idatzi bat sartu zuena hainbat gauza adieraziz. Irakurri egingo dut "Elejalde Ribacoba familia Erreta Tuterako 4. industrialdeko 771 katastro-partzelaren jabetun da, Artziniegan, partzela horretan Arroturas Encimeras eta Bajas mugak barneratzen direla. Finka horrek, Arroturas, eskrituraren arabera hamabi hektarea dituela eta hogeita area eta hamabost zenti-area, hori guztia landu gabea. Iparraldean hormak eta baterako mendia du mugakide; Hegoaldean, bidea eta Palacioko jaraunsleen Baratzeko lurren aurkako hormak, Ekialdean eta Mendebaldean, horma eta bideak". Hau da, ez ditu inondik ere Udal honetakoa ez den beste partzela bat edo bideak mugakide. "Eskrituran, Canteras Elejalderen Oinarrizko Proiektuan (lerro gorria) nahiz airezko argazkian (lerro gorria), horiek baitira helarazitako dokumentuak, egiaztatuta geratzen den moduan, partzela horrek Mendebaldean Costiletik 4. industrialdeko 143. zenbakidun partzelaren alboan), Tablasera arte (mendi publikoa) doan auzo-bidea du mugakide, eta beste aldeetara, horma, baterako mendia eta bideak. Ez da 771 partzelako zati, inondik ere. Auzo-bide hori ez dagoela Artziniegako katastroan jasota, beraz 771 katastro-partzelan Arroturas Encimeras eta Bajas barneratzen dira. Bidea katastroan sartuta ez dagoenez eta inbentarioan ere ez, finka horrek ez du berezko katastro-erreferentziarik. Erreferentziarik ez duenez eta bidea Udalaren aldetik katastroan jasotzen ez denez, 771 finkako zati bat banatu beharrean nago, Arroturas Encimeras y Bajas zonaldeetan. Eskatzen du: Udaletik katastroari agindua ematea aipatu zonaldera bisita bat egin dadin, beharrezkoa bada azterketa topografiko bat egin dadin, eta auzo-bide hori Udaleko bideen inbentarioaren barnean sar dezaten. Halaber, katastroak Arroturas Encimeras eta Bajas zonaldeari katastro-zenbaki berri bat esleitzeko."

Hori, ongi esan dugun moduan, abenduaren 15az ari gara hitz egiten. Iñigorekin bilkura bat izan nuen, izan genuen, eta ondoren bilkura bat izan nuen Angelekin. Angelek azterketa topografiko bat egin behar zela esan zidan. Beno, azterketa topografikoa Canteras Elejaldek eginda zuen jadanik eta aurkeztu egin zion. Erretatik Peñalbara, Tablasera arte, zihoan bide zaharra jaso zezaten, Costileko bidea da hori, Costilekoa zena, mendi-bide zaharra, hala izena du. Irailean gaude, bide hori ez da jaso, eta erraz ipini diogu gero, eta erraz ipini diogula diot kasu honetan ni tartean nagoelako. Hots, Udala. Katastro eskatu diguna eman diegu, azterketa topografikoa hain justu, Arroturas Encimeras y Bajas partzela jasotzen duena, zer duen mugakide eta zer mugakide-ondoko. Bertan modu frogatuan jasotzen da bidea non dagoen. Bisita bat egin dut Angelekin bide horretara, argazkiak atera ditu, txosten bat egingo



zuen, eta Udalak egin behar duen bakarra da katastroari eskatu bidea jaso dezala eta 771 partzelari beste izendapen bat eman diezaiola. Baina beno, kontu honekin bederatzir hilabete.

Alkatea: ez dut oso ongi gogoan, uste dut ez zela horren erraza. Baina ikusiko dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik ez dakit ez ote zen bide publiko bat sekula ez galtzea bezain erraza, Iñigo. Horrenbestez, bide publiko bat, egin behar duzun bakarra, oker ez banaiz, azterketa topografikoa baino ez da, nondik doan ikusteko. Eta ondoren katastroa jo eta berriro inbentarioan sartzea. Uste dut nahiko erraza dela. Eta oraindik ez da egin.

Alkatea: ikusiko dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: horren harira dator bigarrena. Honen harira, hots, Artziniegako Udalak ez duela Erreta Tutera eta Peñalba mendia lotzen dituen auzo-biderik, dator bigarren idatzia, 2018ko ekainaren 25ekoa. Eta zera dio: "Elejalde Ribacoba familia Erreta Tuterako 4. industrialdeko 771 katastro-partzelaren jabea dela, Roturos Encimeros y Bajeros izenekoa. Partzela horretatik Erreta Tutera herria Peñalba mendiarekin lotzen duen baso-pista igarotzen dela. Aipatu baso-pista hori Elejalde-Ribacoba familiaren jabetzakoa dela, nahiz eta azken hogeita hamar urtetan Peñalbara igo nahi izan duten auzotar eta pertsona guztiek erabili egin duten Elejalde-Ribacoba familiak inolako oztoporik jarri gabe. Joan den abenduan Elejalde-Ribacoba familiak Udalarari eskatu ziola Mendiko bide zaharra katastroan aitortzeko. Peñalbara arte zihuan bide publikoa eta gaur egun erabat itxita dagoena eta erabiltzen ez dena. Artziniegako Alkateak, ahoz, Joseba Elejalderi adierazi ziola egungo pistatik Mendiko bide-truke bat egiteko asmoa. Joseba Elejaldek jakinarazi ziola eskaintza hori ez zela aski, izan ere, bide horrek ez du inolako baliorik. Horren ondorioz, bilkura bat izatea eskatu zuen bi aldeak aseko zituen akordio batera iristeko, kontuan izanik azken 30 urteetan hala mendi publikotik igarotzen den pista nola Roturos Encimeros y Bajeros izeneko finkatik igarotzen dena, konpondu dituen bakarra Elejalde familia izan dela. Eta mendi publiko diot, izan ere, Roturos Encimeros y Bajeros partzela amaitzen den gunetik bihurtun edo Erreta Tutera eta Artziniega lotzen dituen errepidara iritsi arte, gutxi gorabehera kilometro bat duen tarte bat dago, pista bat, hori bai dela auzo-pista bat, baina azken 30 urteetan hara inor ez da joan ezer konpontzera. Konpondu behar izan duen bakarra Elejalde familia izan da eta han enpresa bat duelako, edo bi kasu honetan. Joan den ostiralean Rodo enpresak, basozainak aginduta, zonalde pribatuan pista konpontzeari ekin ziola, itxuraz "interpretazio akats baten ondorioz". Pista pribatuaren zati bat konpontzen hasi zen ustez bada... Udalak ez zukeen zertan konpondu. Joseba Elejaldek, ekintza horretaz ohartu zenean, enpresa horrekin, basozainarekin eta Alkateordearekin, Inma Vivanco andrearekin, hitz egin zuela, konponketa hori geldiarazteko hertsatuki eskatuz, aldean artean adostasun batera iritsi arte. Elejalde-Ribacoba familiak urte asko daramatzala eskatuz Artziniegako udalarari Peñalbara arte doan pista konpontzeko, gaurdaino ez duelarik gai horri buruz idatzizko erantzunik jaso. Iazko osoko bilkuran, eta Artziniegako Alkatearen, Iñigo Gomez jaunaren, ahozko agerraldiaren aurrean, esanez pistako zati hori ez zela Udalarena, Joseba Elejalde jaunak egoera jakin bat gertatu zitekeela adierazi zuela, non Elejalde-Ribacoba familiak hesi bat ipin zezakeen bere finkaren hasieran, beraz Peñalba mendira igotzeko bada ez dakit... beste bide bat baliatu beharko genuke, agian Artietatik barna, auzo-bide bat baitago bertan. Bitxia dela Elejalde-Ribacoba familiak mahai gainean bere jabetzakoa den finkatik igarotzen den pistako zatia ixteko aukera ipini arte, Udalak sekula ez duela mantenu-lanik burutu, nahiz eta pista horretatik igaro AFako ibilgailuak, ehiztariak, Telebistako teknikariak, telefoniakoak, abeltzainak eta abar. Aurrez azaldutakoagatik eskatzen du: lan guztiak eten daitezela. Pista zegoen bezala uzteko, eta garrantzitsuena, Artziniegako Udalak formalki eska zezala, idatziz eta lehenbailehen, bilkura bat Elejalde-Ribacoba familiarekin aipatu familiaren lurretatik igarotzen den pistaren erabilerari buruzko adostasun batera iristeko". Hots, bilkura bat ari gara eskatzen mundu guztiak pista hori erabiltzen jarraitzeko, orain arte bezala, zein baldintzatan lan egin behar dugun jakiteko, edo Udalaren aldetik ulertzen ote zen ezinezkoa zela adostasun batera iristea eta desjabetu egin beharko ote zen edo, Udaletik egokituz jotzen zena adierazteko. Nik Alkateari nahiz Jesusi, basozainari, balioespen bat egiteko eskatu nien. Oraindik zain nago. Ekainaren 25az hitz egiten ari gara. Paradoxikoki abenduaren 15etik ekainaren 25era 7 hilabete igaro dira, eta bi gauza ezberdin eskatzen ari gara baina gauza bat partekatzen dutenak, hots, bide baten aitortpena, egiazkoa dena, auzo-bidea, Erreta Tutera eta



Peñalba lotzen zituena, une jakinen batean Elejalde familiak bertatik igarotzen den zatia ixtea erabakiko balu ere, bide hori berreskuratu ahal izateko, konpondu ahal izateko, eta jendea bertatik lasai ibili ahal izateko. Eta bidea konpontzeko ulermena lortuko ez balitz bideraezina dela iritzita, Elejalde familiarekin akordio bat iristeko bide hori itxi ez dadin, eta orain arte bezala erabili ahal izan dadin. Bada, berdinetan gaude. Uste dut garbi mintzatu naizela. Formalki eskatu nuen, idatziz eta lehenbailehen ekainaren 25ean, hiru hilabete beranduago, ez idatziz, ez ahoz. Elejalde-Ribacoba familiarekin bilkura bat izateko. Gerta liteke, abenduan esan nizun Iñigo, bada beno, ez dakit, itxi dadila, auskalo. Eta berriro berdinerantz itzuliko gara. Eta esango didazu mahai gainean duzula, edo ez dakit zein arazo izango duzun orain, agian Aldundiak ez dizu txostena egin, ez dakit, nik esaten dizudana da ez dela zentzuzkoa bi gauza hauek mantentzea, eskatuta daudenak, gainera bietako bat argia izanik, Artziniegako Udalak aitortzen dezala Mendiko bideen bide zaharra, argia da ordea. Argi eta garbia da. Eta erraza da. Angelek eskatu zuena aurkeztu zitzaion. Eskatu zuen guztia aurkeztu zitzaion. Horrenbestez, Angeli galdetu beharko diot zein arazo dagoen.

Alkatea: ez dut oso ongi gogoan hau. Begiratuko dizut.

Joseba Elejalde Ribacoba: Iñigo abenduaren 15az eta ekainaren 25az hitz egiten ari gara ordea.

- Joseba Elejalde Ribacoba: aski errepikatzen den beste kontu bat, egunero bizi ohi dut eta, Peñalbako mendian dauden ahuntzena. Egia esatera hau ere nekagarria da. Baina basozainarekin hitz egiten duzu eta esaten dizu irtenbide bat duela baina abian jarri behar duela. Ez dakit Udalak gai horrekin irtenbiderik ote duen, baina kontua da, ahuntzak eduki ezin diren mendi publiko bat, ahuntzez beteta dagoela. Nahieran ibiltzen dira, lur publikotik, pribatutik, edonondik... berdin da. Nahieran ibiltzen dira antzina-antzinatik. 40 urte baino gehiagoan, eta kontua da inork ez diola zintzarria ipini nahi ahuntzari. Ahuntzari zintzarria ipini beharko zaio. Eta ez dakit Aldundiak esku hartu behar ote duen, edo Udalak. Baina noski, niri esaten didazu "atera argazkiak". Noski, nik argazkiak atera behar ditut. Ezin ditu basozainak atera? Ezin ditu Udaleko langile batek atera? Lur pribatuan baldin badaude ez kezkatu aterako ditut nik argazkiak. Baina lur publikoan baldin badaude, ni joan behar al naiz argazkiak ateratzera? Hobeto basozaina joaten bada, edo udal langilea, nire ustez.

Alkatea: Ahuntzak identifikatuta al daude?

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, gehienek badute arrakada. Baina Iñigo ez da esaten dizudan lehen aldia eta osoko bilkura honetara ekartzen dudana, ez dakit noiztik, 15 edo 20 urte. Eta berdinetan gaude. Bat-batean 20 daude, 20 kentzen dituzte, 40 ekartzen dituzte, 40 kentzen dituzte, 80 ekartzen dituzte, 80 kentzen dituzte, eta gaur 150 egongo dira.

Eta jorrazteko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren bederatzietan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.